

# uk

116. zenbakia / 2007 martxoak 26



# zeurea da aukera jarraitu euskaraz

**ikasketak euskaraz egiteko  
Getxon duzun aukera**

**BATXILERGOA GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK  
GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK**  
Aberrota Institutua

**BATXILERGOA NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
NATUR ETA OSASUN-ZIENTZIAK**  
Aberrota Institutua

**NATUR ETA OSASUN-ZIENTZIAK**  
Fadura Institutua

**BATXILERGOA TEKNOLOGIA  
TEKNOLOGIA**  
Aberrota Institutua

**TEKNOLOGIA**  
Fadura Institutua

**LANBIDE HEZIKETA: ERDI MAILA  
IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA**  
Fadura Institutua

**KONTSUMORAKO EKIPO ELEKTRONIKOAK**  
Fadura Institutua

**LANBIDE HEZIKETA: GOI MAILA  
PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA**  
Fadura Institutua




**Bizkaiko eskaintza ezagutzeko  
eskatu liburuxka:**

**Euskara Zerbitzua**  
euskara.zerbitzua@getxo.net  
94 466 00 11  
www.getxo.net

## ARGIBIDEAK

**Aberrota Institutua**  
Santa Marina 14 • 48983 Getxo  
94 491 17 86  
015103aa@hezkuntza.net  
www.aixorrota.net

**Fadura Institutua**  
Bizkerre z/g • 48981 Algorta-Getxo  
94 406 90 00  
014301aa@hezkuntza.net  
www.ifadura.com



## UK galeria > Fede Merino



Euskarri digital zein kimikoak erabiltzen ditu irudien ediziorako bere semearekin batera lan egiten duen Fede Merinok (1943). Gehienetan zuri-beltza baliatzen du bere hitzetan "gauzen esentzia, sekretua, erakusteko egokiagoa delako". Arreta berezia eskaintzen dio argazkiak positibatzeari "argazkilariak bere obraren interpretea izan behar duelako, izan ere, negatiboan, partituretan bezala, oinarrizkoa idatzita egoten delako". "Errealitateari begirunez eta isilpean hurbiltzen natzaio, bere egia osoa ustekabeen harrapatze ahaleginetan". "Argi naturalaren zalea amorratua naiz, argi horrek existentzia bere gailurrean erakusten duelako".

Bere ibilbide luzean argazkilaritzaren ia arlo guztiak jorratu izan ditu Merinok: industrial, dokumentala, publizitarioa, ikerketazkoa...



Delika, Nerbio ibaiaren jaiotza

«Ez daiteke egurrik egin basoratu gabe» Euskal esatera zaharra

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Asier Menthaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Andres Isasi musika eskola.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Mari Feli Arrate, A. M.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.  
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA.
28. ARGAZKIA. Zuhaitz eguna Areetan.
30. BERBETAN. Juan Luis Arsuaga, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Getxoko erregina, 1965.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Haur zine jardunaldiak Getxon.
43. MUSIKA. Emakumeak musikan zikloa. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Udaberriko uzta. Liburu erreseinak.
45. KIROLAK. Diamir-eko Angel Sanchez.

### EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Talaia plataforma, Oiane Moran.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderen errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Lainoa taberna.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. San Inazio eskola, 1965. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Jose Inazio Ansorena, Maitane Nerekan.



30 Juan Luis Arsuaga



11 Mari Feli Arrate

**Berbetan**  
Burgosko Atapuercan hamaika aztarna utzi zuten aurrehistoriako gizakiei zor die ospea paleontologo bilbotarrak. Beragaz egon gara.



45 Angel Sanchez



34 Getxoko erregina, 1965



23 Aizkoa Oلابarrieta



54 Jose Inazio Ansorena

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkarte

HELBI BIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Menbaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamiruaga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



## gugeu

# Natura

**Hauxe duzue** 2007ko UKren bosgarren zenbakia. Eta berriro ere konturatu barik, -izan ere, etenik gabe doa denbora aurrera beti- negua amaitu eta bete-betean udaberriari sartu gara, ipar hemisferioan lehenengo urtaroen, martxoko ekinoziotik ekaineko solstizioa hedatuko dena. Laster energia aurrezteko aitzakiarekin ordua aldatuko digute eta bat-batean, magiaz-edo, egunak luzeagoak irudituko zaizkigu. Bizitzaren ziklo amaigabea berriro hasiko da; loreak ernatu, fruituak hazi... Naturaren legea.

Naturarekin loturiko eduki batzuk ekarri nahi izan ditugu UKren zenbaki honetara. Esaterako, naturari loturiko kiroletarako produktuak egiten dituen Urdulizko **Diamir** marka ospetsuaren sortzailearekin egon gara: **Angel Sanchez**. Gero jakin genuen eskualdean surfean puntan dabilen **Garazi Sanchezek** Australiara joan behar zuela, Europako ordezkari bezala, han egingo den txapelketan parte hartzera. Zer diren gauzak! Garazi Angelen alaba dela ohartu ginen ondoren, hori familia kirolzalea!

Naturarekin kezkatuta daude Lemoizen sortu berri duten **Talaia** plataformako kideak, inguruko auzi ekologikoei irtenbidea eman nahi diete eta baita proiektu askoren egokitasuna zalantzan ipini ere. Eurekin egon ginen. Eta gure azalean gero lbaizabalekin bat egiten duen **Nerbioi** ibaiaren jaiotzan ateratako argazkia daukazu. Eta erdiko orrialdeetan orain dela 70 urte Areetan ospatu zuten Zuhaitz Egunean hartutako erretratu eder bat...

Horixe ba, zuoi natura apur bat hurbiltzen saiatu garea UK honetan. 4

UK-ko lantaldea

## matematika aplikatua



Gorka Vázquez


## jaso dugu

# Arrue, baina zer diozu?

Datozen udal hauteskudeen kanpainaren harira, Marisa Arrue Getxoko PPren hautagaiak prentsaurreko bat eman zuen pasa den astelehenean, martxoak 5, Errekagane kaleko tailerren aurrean. Bertan Itzubaltzeta gaztetxea dago. Bitxia iruditu zaigu balizko zaharberrietze proposamen bat azaltzeko leku hau aukeratu izana. Izan ere, Getxon hobekuntzak behar dituzten hamaika leku daudela kontuan hartuta. Gaztetxearen aurkako kanpaina baten hastapena ez al da izango, Arrue anderea? Areetako skate parka Errekaganean jartzea eskatu eta bi urte beranduago, Arruek bi "alternatiba" berri eskaini zituen "beldurra ematen duen kale itsusi" horretarako: berdegune bat eratze edo, ibaitik 10 metrora ezin dela eraiki ahaztuta, bertan gazteentzako "tailerrak baldintza onetan" altxatzea, beti ere Udalaren menpekoak izanik. Itzubaltzeta gaztetxetik nahi ditugun lokalak herriarengandik eta herriarentzat direla gogorarazi behar dugu. Hots, lokal autogestionatuak, gazteek beraiek beren jarduerak gauza ditzaten, gaztetxean aspalditik egiten dugun legez. Herriak nahi dituen jarduerak ezagutzeko, IGAtik inkestetan oinarritutako ikerketa burutu genuen, eta bertan argi eta garbi gelditu da gazteriaren gehiengoa espazio autogestionatuen aldekoa dela. Azkenik, alderdi guztiei esan behar diegu orain arte aurrera eraman dugun filosofiaren aurkako proiektu ororen kontra izango garea aurrez aurre. Ez gara iruzurretan eroriko.

Itzubaltzeta Gazte Asanblada

[irudia]




ERANDIO, 2007KO MARTXOAREN 16A

**Ontziolak** / Erandion bizirik irauten duen azkeneko ontziola da Murruta Ontziolen Bilbao Centro Naval. Antzinean ibaierantz horretan ohiakoa zenak harritu egiten gaitu gaur egun; ala ez al da bitxia autoz goazela errepide ondoan eraikitzen ari diren 4.500 tonako isasontzia ikustea? Desagertzeaz dagoen espeziea balitz legez begiratzen diegu arretaz eta gure aurrean dagoena azkena izango ete den gure buruari galdetu. *Arklew Fortune* dauka izena kargaontziak eta behin amaituta, Irlandarako bidea harruko du behin betiko. m / Argazkia: **Asier Menbaka**

# Eskegi sukaldean UKren *barazkien posterra*

Zelan eskuratu?  
Zatoz UKren bulegora\*, eskatu eta kitto!

**AZKEN ALEAK!!**



## Ezaugarriak

Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Barazki guztien izenak (euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta izen latinez) eta eurak jateko sasoiak.

Argitaratzailea:

UK aldizkaria

Babesleak:

Getxoko Udaleko

Euskara Zerbitzua

BBK

\* bulego ordutegia:

goizez 10:00-14:00 / arratsaldez 15:30-18:00



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37



**Iraganez doa denbora\* beti / ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLA**

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; zeruan zintzilik



Sopela, 2007

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Oihal soil bat  
aurrekontu  
aske, baina  
sokaz lotu,  
haize-putza  
da pilotu,  
labar ertza  
aireportu.

Oihal bete  
haize bare,  
aise bera  
aire ere.  
Jausi egin  
jausi gabe,  
hegal gabe  
hegan gaude.

Soka-euri,  
oihal-laino,  
naramazu  
zeruraino!  
Azkena lur,  
zeru baino...  
jausiaren  
desengaino.

\* Doinua: *Itsasoa laino dago*



## BASALBO BASERRIA JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO  
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM


## erakusketa &gt; Uribe Kostako argazkilarien lanak Algortan ikusgai



Erakusketan ikus daitekeen Asier Mentxakaren lana (Fatima, Portugal 1997)

**Uribe Kostako** zein inguruetako argazkilari talde batek egindako lana ikusgai dago egunotan Algortako Satistegi Kafean. Zehazki, honakoak dira erakusketarako euren argazkiak utzi dituzten argazkilariak: Alfredo Aldai, Juan Luis Markaida, Oskar Martinez, Txetxu Berruezo, Jon Bernardez, Mikel Martinez, Aitor Galbarriatu, Asier Mentxaka eta Javi Baraiazarra. Seguru asko ezagunak izango zaizkizue aipatutako izenak, izan ere, sarritan kolaboratu izan dute UK aldizkarian euren irudi bikainekin. Erakusketaren gaia askea da eta argazkilari bakoitzak argazki bi eskegi ditu. Halere, ez da Uribe Kostan argazkilariak antolatuta duten erakusketa bakarra, *Itsasoaren inguruan* proiektu ederra eskualdeko herri batetik bestera dabil-eta aspaldi. Hurrengo hitzordua Erandion izango da, apirilaren 31tik maiatzaren 11ra. <sup>m</sup>

## 36ko gerra &gt; Matxitxakoko batailari buruzko komikia kalean da



Mikel Begoña sopoloztarra izan da komikiaren egileetako bat

**Martxoaren 5ean**, gerra zibilaren 70. urteurrena dela-eta, omenaldia egin zieten Matxitxakoko batailan parte hartu zuten gudariei. Egun berean, itsasoa egindako borrokaren berri ematen duen *Beruneko itsasoa* komikiaren aurkezpena egin zuten bere egileek, Ricardo Sendrak eta Mikel Begoña sopoloztarrak. Euskal Herriko historiaren zati garrantzitsuenetarikoa bat irudietan dakarkigu komikiak. Matxitxakoko bataila 1937ko martxoaren 5ean gertatu zen; hain zuzen ere, Canarias gurutzontzi frankista eta Galdames merkatalontzia eskoltatzen zuten Gipuzkoa, Nabarra, Bizkaia eta Donostia bouak aurrez aurre jarri zirenean. Lehenbizikoa 22 kanoi eta 1000 gizonez osatuta zegoen bitartean, euskal ontzietan marinel zibilak zihozten eta guztiek batera 8 kanoi besterik ez zituzten zenbatzen. Imajinatzen duzue zer gertatu zen? <sup>m</sup>

## saiaz getaria



HOTEL

Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

**euskara** > *apellidduak abizendu* kanpainia martxan da berriro ere



**Norberaren** izena edo abizena euskarazko grafiaz ipini gura duenak aukera paregabea dauka orain Getxoko Udalak abian jarritako *Apellidduak abizendu* kanpainaren bigarren edizioagaz. Oso erraza da, izan ere, 5 euroren truke hizapide guztiak burutuko dituzten aholkularitzen zerrenda eskaintzen du Euskara Zerbitzuak. Besteak beste, honakoak dira ekimenean parte hartuko duten gestoriai: Aizpurua Aholkularitza-Etxea, Premium, J&J Gabela, Zubieta, Galea, Uralde Gestoria, Iberko, Satel, Pablo L. de Uralde eta Antuñano Gestoria. 2006ko apirillean lehenbiziko aldiz martxan jarri zenetik, 81 getxoztarrek egin dute izen-abizenak aldatzeko eskaria. Aholkularitza etxeetako arduradunek, bere aldetik, egitasmoaren balorazio positiboa egin dute eta prest agertu dira kanpainagaz jarraitzeko. Informazio gehiago gura izanez gero, arestian aipaturako gestoriara deitzea besterik ez daukazue. m

Izen-abizenak euskarazko grafian jartzeko aukera eskaintzen du egitasmoak

**txirrindularitza** > talde berria aurkeztu du Punta Galea elkarteak



**Joan** den martxoaren 4an, talde berriaren aurkezpena egin zuen Getxoko Punta Galea Txirrindulari Elkarteak. Horrela, taldea osatzen duten kategoria guztiak zein horien babesleak ezagutzera eman zituen Iñigo Mentxaka presidenteak. Aurtengo denboraldian, beraz, 11 txirrindulari (tartean emakumezko bat) edukiko ditu txirrindularitza eskolan; bost (emakumezko bi) kadete mailan; bederatziz gazte mailan eta 60 bat zikloturisten taldean. Azken horretan, txirrindularien kopurua nabarmen igo da, inguruko ikastetxeetan egindako kanpainari esker. Abendutik hasita hainbat eskolatan egon da Punta Galea: Geroa Ikastola, Zubilleta ikastetxea, Ander Deuna Ikastola... Bisita horietan, gainera, Iñaki Isasi, Iñigo Landaluze eta Roberto Laisekaren tamainako txirrindularien laguntza eduki du. m

Taldeari buruzko informazio gehiago [www.puntagalea.com](http://www.puntagalea.com) webgunean


[erretratua]



"Ikasleak kaletik agurtzea eta euskaraz erantzutea poztasun handia ematen dit", Mari Feli Arrate gorliztarra

**Mari Feli Arrate** > Gorlizko eskolako irakasle ohia

**Herritik bi kilometrora** dagoen Arratena baserrian jaio zen Mari Feli eta Gorlizen eman du bizitza osoa: *"Hemen jaio, hasi, hezi eta bizi izan naiz"*. Inguruko gazteek, eta jada gazteak ez direnek, andereño Mari Feli bezala ezagutzen dute, izan ere, 40 urte baino gehiago eman ditu irakasle lanetan. Klandestinitatean hasi zen, euskarazko klaseak ematen. Hastapenak gogorak izan ziren, *"material barik, lurrean eserita..."*, baina Mari Felik aurrera jarraitu zuen eta 1983an Gorlizko eskolan hasi zen. Denetarik eman du, maila guztietan: *"Gu todoterreno izan gara, gorputz beziketa ere eman dut"*. Hezkuntza sistemak aldaketa handiak bizi izan ditu bere ustez: *"Lehen bakoitzak bere erara inakasten zuen; orain taldeko lana eta eskola bakoitzak duen proiektua da garrantzitsuena"*. Euskararekiko begirunea ere asko aldatu da: *"Hasierako gurasoen jarrena ezberdina zen, eurek jartzen zuten gogoia eta indarra, sentimenduak mugituta; orain, orokorrean, lehenengo ardura beziketa da, euskara bigarren mailako kontua da"*. Urrezko kilometroa korritu du aurtengo korrikari: *"Poztasun itzela eman dit horrek, proposamena ikasleengandik irten zelako eta horrek esan nahi du pertsona horientzat zeezer izan naizela"*. Lan neketsua dela onartzen duen arren, faltan botako du ikasleekin egunero borrokan ibiltzea. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

	<p><b>Basurto</b></p> <p>Algorta S.L.</p> <p>altzariak</p>	<p><b>LEHEN, ORAIN ETA BETI</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>1970</b>az geroztik altzariak diseinatzen.</li> <li>• 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa <b>ZURE ZAIN!</b></li> <li>• <b>ARMAIRUAK NEURRIRA</b> egiten ditugu (Telletxe 4)</li> </ul>
	<p>Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • <b>ALGORTA</b></p>	

# Getxo izeneko taldeak

Hainbat kiroltako **14 taldek** eroango dute **Getxo izena eta irudia**, eta batzuek Getxo markaren berezko kolore gorria ere bai; baina **badira udal proposamenen sartu ez diren taldeak** ere

**Getxoko Udalak bi legegintzalditarako (1997-2007) osatu zuen Kirol Planaren zutabetako bat da Getxo marka sortzea, hau da, udalerrian jarduten duten kirol esparru bakoitzeko Getxo izena deroan talde bakarra eratzea. Arrauna izan zen udal egitasmoari baietza eman zion lehenengo kirola, eta oraintsu beste 14 talde sartu dira Getxo izenpera.**

**Orain dela** hilabete batzuk, udalerrian Getxo izenagaz jarduteko baietza eman lezake ten 24 bat kirol esparru egon litezkeela jakitera eman zuen kirol zinegotzi Guzman Aranagak. Balizko aukera horietatik 14 taldek egin dute udalaren proposamenen sartzeko eskaera eta 13 taldek jaso dute onespena. Hala, hurrengoak dira osterantzean Getxo izena eroango dutenak: Getxo Rugby taldea, Getxo Saskibaloia, Getxo Arraun, Punta Galea Txirrindulari taldea, Erromo Eskubaloi taldea, Aixerrota boleibol taldea, Hockey taldea, Fadura Tennis elkarte, Padel Aixerrota, Getxo Igeriketa taldea, Getxo Atletismo, Getxoko Euskal Pilota eta Bizkerre emakumezkoen futbol taldea. Ezezkoa eman diote piraguismo taldeari, eta horren arrazoia ei da udalerrian bi talde daudela eta momentuz ez dutela gura bat egin. Horrez gainera, proposamenetik kanpo lotu diren beste kirol esparruak ondorengoak dira: gimnasia, herri kirolak, aeromodulismoa, skatea, surfa eta gizonezko futbol taldeak (egitasmoari ezetza eman zioten duela hainbat hilabete).



Fadurako Teknika Hobekuntzarako Zentroa

Getxo izena hartuko duten taldeakaz bi motatako hitzarmenak egingo ditu Udalak: batzuek, Getxo marka bakarrik gehituko diote euren jantziei, eta besteek Getxo markaz gainera, jantziak ere aldatuko dituzte: Getxo markaren berezko kolore gorridu-

## «Taldea batzuek Fadurako Teknika Hobekuntzarako Zentroa erabili ahalko dute»

nak izango dira. Bestalde, taldeek bi behar izango dituzte: kirol eskoletan (8 urtetik gorako umeentzat) parte hartu, eta eskola kirola ekimeneko partehartzaile izan.

Gainerakoan, Udalak Gobela kiroldegiko gela bana utzi die hurrengo taldeei: Arenas eta Erromo (futbola), Erromo eskubaloi taldea eta Getxo Saskibaloia.

Bestalde, Getxoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak sinatu berri duten hitzarmen baten bitartez, errugbi, arraun eta saskibaloi taldeek Fadurako Teknika Hobekuntzarako Zentroaren hainbat zerbitzu erabili ahal izango dute. Horren truke, Udalak Fadurako ugerlekuko kale bat erabiltzeko aukera emango die goi mailako ugerlariei. <sup>m</sup>

## Datu batzuk

- **Getxo izeneko kirolak:** Errugbia, saskibaloia, arrauna, txirrindularitza, eskubaloia, boleibola, hockeya, tenisa, padela, igeriketa, atletismoa, euskal pilota eta Bizkerre andrazkoen futbol taldea.
- **Kanpoan lotu dira:** piraguismoa, skatea, surfa, gizonezko futbol taldeak, gimnasia eta herri kirolak.

## Itzubaltzeta gaztetxea “lehiaketa-gune” bihurtu dute



Gobela kiroldegitik hurbil, Itzubaltzeta/Erromon dagoen gaztetxea

**Hil hasieran** isiotu zen sua. *El Correo Español*eko albiste batek zioenez Gobela kiroldegi aurreko lantegiari irtenbidea eman diezaie-las eskatu ei diote udalari erromoko auzotarrek. Lantegiak aspalditik daude hutsik eta utzita; alde bat izan ezik, han zutitu zuten orain 2 urte eta erdi Itzubaltzeta Gaztetxea. Albisteak ez zioen “Erromoko auzotar” haiek zenbat eta zeintzuk ziren. Bi testigantza bakarrik zekartzan; biek salatzen zuten ingurunearen utzikeria eta zinkinkeria, ostera, batek gaztetxetik sortzen zen zarata ere zuten gogoan, besteak gazteek ez ziotela eragozten zioen. Jarraian, Getxoko PPko bozeramaile Marisa Arruek prentsaurrekoan azaldu zuen utzikeriaren inguruan mozioa aurkeztuko zuela; eta bi proposamen eskaini zituen: Udalak Errekaganeko lantegiak erosi eta bota ditzala, gazteentzako

tailer “duinak” egiteko ala berdegunea handitzeko. Horri erantzunez Getxoko alkate Iñaki Zarroak zera adierazi zuen: Ibaien Legearen arabera ezin dela Gobelatik 10 metro baino gutxiagora eraiki, horrenbestez gazte lokalena ezinezkoa da; bestalde, *“gure asmoa berdeguneak egitea da”*, eta horren ondotik gogoratu zuen lehenik ere ahalegindu zirela orubea erosten baina guztia ezin izan zutela eskuratu. Enbataren erdian daude Itzubaltzeta gaztetxe-koak. Arrueri euren egitaraua, zaharberitze lanak eta ikerketak aurkeztu eta auzotarrakaz egin dute berba. Alabaina, argi utzi dute ez dutela Udalaren kontrolpeko erakinek gura, autogestioagaz jarraitzea baino, eta ez dutela eraispenik gura. Azken 6 urteotan 9 gaztetxe eraitsi dituzte Getxon, eta hauteskundeen atarian berriro ere hautsak harrotu egin dira. <sup>m</sup>

## BIZTANLE BAKOITZEKO 5-7 ARRATOI EI DAUDE GETXON

Udalerrian getxoetar bakoitzeko ustez 5 eta 7 arraitoi bitartean daudela jakinarazi dute. Ingurumen arloko ziotzi Fernando Burzakok ondorioztatu duenez, zenbateko hori “ohiko kopuruen artean dago”, hau da, ohiko ereduak kontuan hartzen duten kopurua ei da. Udalerrian karraskari gehien batzen diren lekuak ere betikoak dira, arratoinen bizileku ohikoenak: erreka alboetan, itsasertza, hutsik eta utzita dauden orubeak eta metroko burdindibeak. Arratoiak hiltzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen den enpresak jakinarazi duenez, erantzun dituzten deien %25 etxalde pribatuetatik egindakoak dira, “eta horiek ez dira Udalaren erantzukizuna”.

## GETXOKO UDALAK 356.851 EURO BANATUKO DITU GGKE-EN ARTEAN

Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeentzat (GGKE) 356.815 euro bideratuko ditu udal getxoetarrak aurten, eta eskaerak egiteko epea laster egongo da zabalik. 3 Proiektu mota bultzatuko ditu Udalak: garapen bidean dauden herrialdeei begirakoak, getxoetarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak eta larrialdi egoerei aurre egiteko bideratuta daudenak. Horrez gainera, azkenengo 4 urtean 112 egitasmo bultzatzeko 1.345.512 euro bideratu dituztela jakinarazi dute udal arduradunek, eta denbora tarte horretan aurrekontua %15 igo dela.

## GIZATIARREK AZOKATXOIA ANTOLATUKO DU

Gizatiar emakume elkarteak azokatxo bat antolatuko du apirilean. Erromoko erakustaretoak hartuko du “Azokatxo” lau egunez, hilaren 16an hasi eta hilaren 20ra bitartean, hain zuzen. Getxoko kultur etxetik azaldu dutenez, Gizatiarren “Azokatxoak” hurrengo ordutegia izango du: goizean 11:00etatik 1:00a arte eta arratsaldean 6:00etatik 9:00ak arte.

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua  
LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak  
Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

Garaizar  
berrikuntzak  
• igeltzeritza orokorrean  
• etxebizitzak eta lokalak  
• gremioak  
tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net  
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

ALERGIA  
ASMA  
ERRINITISA  
URTIKARIA  
KONJUNTIBITISA  
MEDIKOSTA  
IMQ-SANTAS-MAPPE  
ALGORTAKO ETORBIDEA 96  
48931 ALGORTA  
94 460 98 45  
CRISTIAN AMEZAGA  
MEDIKU ALERGOLOGOA  
RFE 100-95

## Balorazioa

6,16 puntu jarri dizkiote herritarrek Udalaren kudeaketari

**2006ko** azaroan egindako ikerketaren arabera, 6,16 puntu ipini zizkioten herritarrek Udalaren kudeaketari, beraz, urrian baino apur bat gehiago (orduan 5,90eko puntuazioa jaso zuen). Hain zuzen ere, getxoztarrak udalerriko bizi kalitateagaz oso pozik daudela ematen du (7,70 puntu) eta kale garbiketa, kultur ekitaldiak, kaleak konpontzeko lanak eta berdeguneak dira, Udalaren esanetan, ba-

**«Aparkekua, trafikoa eta etxebizitza oraindik konpondu beharreko arazoak dira»**

lorazio onenak lortu dituzten arloak. Aparkekuen arazoa, trafikoa eta etxebizitzaren urritasuna, ordea, konpondu beharreko auziak direla pentsatzen jarraitzen dute Getxoko bizilagunek. Horri erantzunez, ibilgailuek eragindako arazo- ei aurre egiteko irtenbideen bila dabilzala nabarmendu dute udal ordezkariak eta Mesedeetako kalean, Santa Eugenioan eta Gobela kiroldegian eraikitako aparkalekuak zein Villamonten egingo dutena ekarri dute gogora. <sup>m</sup>

Aparkatzea gaxa da Getxon



**Garazi Sanchez** > surflaria

“Lehenak ezin zuenez joan, niri deitu zidaten Europako ordezkari bezala Australiara joateko”



Garazi Sanchez, surflari algortar gaztea

**Pasa den urteko martxoan hartu zituen lehenengoz Australiako olatuak Garazi Sanchezek. Eta okerrik gertatu ez bada, Australia aldean dago berriro ere algortarra. Ager nebagaz batera joan da Ozeania aldera 15 urteko surflari gaztea, eta 5 aste inguru emango dituzte han. Olatu on-onak opa dizkiegu!**

—Ezagunak dituzu Australiako olaturak, zelan joan zen lehenengo harremanak?

—Bidaia ez genuen lar ondo hasi, surf oholak 5-6 egun beranduago heldu ziren-eta. Gainontzeko guztia nahiko ondo. Han Algortako beste batzukaz ibili ginen, beraz, etxean bezala. Esperientzia hartatik ikasi dudana izan da gurasoengandik urrun egonda nire kabuz gauzak egiten, baita bizikidetzaren ere. Surfaren aldetik? Australiako olaturik onenariok dauden lekura heldu ginen eta zirkoi bat sortu zen. Ulertzeko moduan, Mundakan gertatzen denaren antzekoa da, olatu kontuetan ez, baina harea altxatzen du eta olatu txarrak egon ziren. Beste lekuetan, olatu onak izan ziren, gustura ibili nintzen.

—Europako ordezkari legez zoaz oraingoan.

—Lehenengo neba eta biok bi astez zirkoiak eta egon zen lekura joango gara, ia oraingoan

ondo harrapatzen ditugun olatuak! Gero, handik 1.000-1.500 km helgoalderantza abiatuko gara, Bellsbeach-era. Hara kontinente bakoitzeko txapeldunak ei doaz, ni ez naiz txapelduna, baina berak ezin zuen joan eta orduan niri deitu didate. Ez dakit zein surflari egongo den, baina uste dut esperientzia polita izan daitekeela, leku hori da lehen aipatutakoagaz batera Australiako “surf-leku” onenariokoa. Gure txapelketagaz batera WCT txapelketa bat egingo da, mutilen eta nesken mailan, orduan profesionalak ikusteko eta ahal dena ikasteko aukera ona da hori.

—Oraingoan irabaztera ala ikastera zoaz?

—Irabaztera, baina nagusiagoengandik ikastea ere espero dut. Batez ere, hurrengo denboraldirako prestatzera noa. Itzuli eta aste eta erdira Portugalgo Munduko txapelketa egingo da. Meniskoa lesioa eduki dut, ebakuntza egin zidaten eta 3 hilabetez egon naiz surf egin barik, eta uste dut oraindik ez nabilela oso-oso ondo. Horregatik, espero dut han beroagaz eta olatu onakaz berriro ere sasoi berreskuratzea. Osteen, uztailean Europako pro-junior zirkuitua hasiko da Portugalen, eta probetako bat Sopelan antolatuko dute abuztuan. Baina hori baino lehen gauza asko daude. Bestalde, oraingorako ere Getxoko Udalak laguntza eman dit (3.800 euro), eta pozik nago, badirudielako nesken ekimenak

**«Asko ibili behar dut, pausoz pauso joan, oraindik gaztea naiz»**

bultzatzeko asmoa dutela. Eskerrak eman nahi dizkiet, eta guraso eta familiari ere bai, baita Rip Curl eta Pukas babesleei ere.

—Eta Gilmore garaitzeko asmoak?

—Bera lehenengo mailan, nagusiakaz, dabil, eta niretzat idolo antzekoa da. Bera garaitzeko, uste dut, oraindik asko ibili behar dudala. Lehenengo pausoz pauso joan, apurka-apurka; oraindik gaztea naiz eta badaukat denbora. Baina, noizbat irabaztea... <sup>m</sup>

## Ballet Biarritz Gaztea II

**Ibilaldia** dantza ikuskizuna taularatuko dute martxoaren 31n Getxo Antzokian



Ballet Biarritz Gaztea konpainiako dantzarietako batzuk

**Getxo Antzokiko** oholtzak dantza ikuskizun ederra hartuko du hilaren azkenengo egunean (20:00; sarrak 9/7 euro). Lehenengoaren arrakasta ikusita, Ballet Biarritz Gaztea konpainiak bigarren ekimena ipini du martxan, *Ibilaldia*.

Biarritz Mugaz Gaiandiko Zentro Koreografikoak eta Dantzas elkarteak (hainbat eskal erakunderen laguntzagaz) 2005ean sortutako proiektua da Ballet Biarritz Gaztea, eta aurreten bigarren urtea bete du. Egitasmoaren helburua hurrengoa da: 18-22 urte bitarteko dantzari gazteei profesional bihurtzeko aukera izan dezaten urtebeteko hezkuntza eskaintzea, bertan dantza ikasketak eta emanaldiak uztartuko dituzte ikasleek.

Hala, prestakuntzara bideratutako konpai-

nia gazteak ikasitakoa taularatuko du Getxo Antzokian. Pizpunde garaitik eta XX. mendera bitarteko dantza ibilbidea proposatzen du *Ibilaldia* emanaldiak: *Paradizo*-tik hasi eta *Gershwin* arte, *Obertura Cubana*. Horri lotuta, 10 dantzari gazteek (7 andrazkok eta 3 gizonzok) Gaël Domenger, Christophe Garcia, Christophe Grimaldi eta Thery Malandainek (Zentro Koreografikoaren zuzendari ezaguna) prestatutako koreografia bana dantzatuko dute.

Ez da sarritan egoten dantzagaz gozatzeko aukera handirik gure artean, horrenbestez parada honi heltzeko gomendioa luzatzen dugu, gainera gerta liteke etorkizunean dantzari gazte hauek ikusteko antzoki urrunetara joan eta dirutza handia ordaindu behar izatea. <sup>m</sup>

## UNAI ELORRIAGAREN VREDAMAN INGELESERA ITZULIKO DUTE

Unai Elorriagaren (Algorta, 1973) azkenengo liburua ingelesera itzuliko duela jakinarazi du bere webgunean Brooklyngo Archipelago Books argitaletxeak. Sareko orrialdean adierazi dutenez itzultzailea Amaia Gabantxo da. Argitaletxe estatubatuarrek 10.000 dolarreko dirulaguntza jaso ei du Elorriagaren liburua itzultzeko.

## ANTZERKIAREN MUNDUKO EGUNA OSPTAUKO DUTE GETXON

Ez dago beste modurik Antzerkiaren Munduko Eguna ospatzeko ez bada antzerki lan baten emanaldiagaz. Getxoko Antzerki Eskolaren ekimenez *Divinas Palabras* lana antzeztuko dute Getxo Antzokian apirilaren 1ean (19:00; sarrera: 3,50 euro). Bestalde, martxoaren 30eko (19:30; sarrera: 3 euro) beste antzerki emanaldia ere aipagarria da. “Besarkada” Emakume Antzerki taldeen federazioak antolatzen duen “Emakumeak eszenan” zirkuituaren barruan Totum taldeak *Y al fondo... el sol en el horizonte* antzerki lana eskainiko du.

## KOLDO ALMANDOZEN MIDORI FILM LABURRA ESKAINIKO DUTE CINEMA PARADISON

Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuen Koldo Almandozek *Midori* film laburra, bere seigarren lana. Donostian eta Kioton grabaturiko filmak Midori makuludun neskatoren ibilaldia kontatzen du. Animazio zati bat ere badu lanak, Anjel Aldarondok egina. *Midori* Kimuak zinema sustatzeko eta banatzeko Jaurilaritzen programarako hautatua izan zen. Almandozen azken lana Getxo Antzokian ikusi ahal da apirilaren 13an (22:00), ostean *Thumbsucker* filma emango dute.



## GUZTION ARTEAN HEZITZEN

- URTEBETETIK AURRERA
- HAURTZAINDEGI LABORALA
- AUTOBUSA ESKUALDEAN
- JANTOKI ZERBITZUA

- ESKOLAZ KANPOKOAK (EUSKAL MUSIKA ETA KULTURA, HIZKUNTZAK, KIROLAK DENETIK SURF, MULTIKIROLA...)

ARENE AZPI, 15 - 48991 GETXO - TELF: 944 305 478 FAX: 944 305 477 - WWW.SANIKOLAS.COM



Leioako Gazte Asanblada > herriko gazteen eguna ospatu zuten martxoaren 24an

## “Gazteok egina, gazteontzako da egitasmoak aurrera ateratzeko asanbladak erabiliko duen lema”

Uda pasatakoan ernatu zen Leioan Gazte Asanblada sortzearen ideia; halere, proiektua ez dute orain arte gauzaterik izan eta joan den otsailaren 9an egin zuten taldearen aurkezpena. Aurretik, aldiz, bazegoen beste asanblada bat, Udondo Gaztetxekoa hain zuzen ere. Gazte hauek, baina, asanblada gaztetxeko eremutik atera eta udalerrian barrena zabaldu gura dute euren mezua. Taldekide batzukaz egon gara.



Leioako Gazte Asanbladako kideak dira Alex, Eneko, Urko, Andoni eta Peru

“Leioan badaukagu Gaztetxea eta horrek badauka bere asanblada, baina gaztetxearen barruan jarduten du eta herria ez dela lantzen atzeman dugu. Ez diegu kompetentzia egin gura, askotan eurek ez egoten gara eta. Konplementarioak izan gura dugu eta herri guztiarentzako asanblada biltzura. Herriko gazteei kostatzen zaie gaztetxearen sartzea, lotsagatik edo. Guk oztipo hori gainditu eta herriarentzat egingo dugu behar”, azaldu du Peru Vidal asanbladako kideetako batek. Hain zuzen ere, “Gazteok egina, gazteontzako” izango da proiektuak aurrera eroateko orduan taldeak aplikatuko duen lema.

Hortaz, udalerrian diagnostikoa burutzea izango da taldearen lehenbiziko erronka. “Gazteok herria zelan ikusten dugun jakin gura dugu, asanbladaz ez dauden gazteakaz berba egitea

azken finean”. Horretarako, inkesta bat egingo dute egoera zein den jakiteko: zer gura duten eurentzat, zer herriarentzat... Izan ere, herriko

### «Herriko koadrilen artean ez dago harremanik»

koadrilen artean harremanik ez dagoela deitoratu du Peruk. “Lagun taldeek euren lokalak dituzte eta gainera, Udalari ez zaio gazteak mugitzea komeni”, salatu du eta orain arte iritsi

ez diren lekuetara iristen saiatuko direla agindu.

Aurrerapausoak ematen hasiak dira daborduko. Martxoaren 24an, esaterako, Gazte Eguna antolatu zuten. “Antolatzen zen laugarren aldia zen, aurreko urteotan Kraska gazte konpartsak zeukan eta horren ardura. Konpartsa orain asanbladaren barruan dago”. Ekintza piloa antolatu zuten egun hartan: olinpiadak, umeentzako jolasak, tailerrak, hankapaluak, herri bazkaria, kontzertuak, etab. m

## Zinea euskaraz

**Donkey Xote** filmari buruzko **erakusketa** antolatu du Kultur Leioak



Abenduan estreinatuko duten Donkey Xote filmaren fotograma bat

**Apirila euskaraz blai** programaren barruan, euskal zinearen erakusketa antolatu du hirugarren urtez Kultur Leioak. Aurtengo edizioan, **Donkey Xote** animaziozko filma jarriko dute ikusgai Anbigun. Besteak beste, marrazkiak sortzeko emandako pausoak eta hainbat teknika erakutsiko dira. Martxoaren 30ean hasi eta apirilaren 29ra arte iraungo du erakusketak (ordutegia, 10:00etatik 20:00-etara).

### On Kixoteren abentura berriak

Cervantesek sortutako On Kixote pertsonaia oinarri hartuta, abenturazko komedia ekarriko digu laster Filmarek. Zaldia

izan gura duen Rucio astoak On Kixoteren benetako istorioa kontatzen du zintan eta zalduna zoraturik ez dagoela defendatu (alderantziz, oso azkarra eta sutua dela nabarmentzen du). Beragaz batera, Santxo, Kixoteren lagunik onena eta Rocinante zaldia (kortatik irteera gogoko ez duena) joango dira. Denek batera, “Ilargiko Zalduna” garaitu eta Dulcinearen nortasuna zein den deskribitu beharko dute.

Oraindik, baina, ez dute marrazki bizidunen pelikula estreinatu, beraz, datorren abentura arte itxaron beharko dugu zinema aretoetan ikusteko. Filma euskaraz ikusteko aukera egongo da. m

## LAMIAKO TXORIERRIGAZ LOTUKO DUEN IGOGAILUA ERAIKIKO DUTE

Hiru urteren buruan Txorrierra eta Lamiako auzoak hurbilduko dituen instalazio mekanikoa funtzionamenduan egongo dela agindu du Leioako Udalak. Oraindik, baina, ez dute zehaztu igogailua ala funikularra izango den. Lanen aurrekontua bi milioi eurokoa izango da eta Txorrierra auzoko hirigintza planari egingo dioten aldaketari esker jarriko dute. Horrez gain, 42 etxebizitza, plaza bat eta pasealeku bat eraikiko dituzte. Lanok 2009rako amaituta egotea espero du Udalak.

## AUKERAREN DANTZA IKUSKIZUNA MARTXOAREN 30EAN

Aukeran taldeak martxoaren 30ean eskainiko duen **Bideak** ikuskizunak bideen eta bide gurutzeez inguruko hausnarketa egiten du: bizitza eta heriotza, amodioa eta guda... Erritmo eta folklore tradizionala dantza garaikideagaz uztartzen ditu Aukerarek. Bertoko doinuak urrutiko musikakaz nahastuz euren estilo propioa aurkitu dute. Emanadia Kultur Leioako Auditoriumen izango da, 20:30ean. Sarrera, berriz, 6 eurokoa izango da.

## 384 IBILGAILURENTZAKO LURPEKO PARKINA ERAIKIKO DUTE PINUETAN

1.376.000 euro emango ditu Leioako Udalak Pinuetan egingo duten lurpeko parkinaren lanak aurrera eroan ahal izateko. Azpiegitura berriak 384 ibilgailurentzako lekua edukiko du, zonaldean dagoen aparkatzeko arazoari irtenbidea emateko. Aparkalekuak saltzerako orduan, lehentasuna edukiko dute Gaztelubide, Lamiako eta Ibaiondo auzoetako bizilagunek. Bestalde, parkinaren teilatua plaza bat ipiniko dute.

Zure publikitatearen hemen  
Zure publikitatearen hemen  
Zure publikitatearen hemen

94 491 13 37

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK  
egiten ditugu

e-mail: [hirstab@euskalnet.net](mailto:hirstab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

udondo  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

## [erandio]

Immigrazioa > 1.338 atzeritar bizi dira Erandion gaur egun

## Etorkinei ongietorria emateko gidak banatuko dituzte Erandion

2006an Erandion zenbatu zituzten 24.104 biztanleen artean 1.338 atzerritarrak ziren; hori da, behintzat, Udalak kaleratutako datuek diotena. Orain dela hamarkada bateko zenbakiak konparatuz gero, ez da kopuru makala; izan ere, orduan 67 etorkin besterik ez ziren bizi udalerrian. Hartara, hazkunde hori ikusita, etorri berrientzako gida kaleratuko du Udalak.

**Bizkaiko** Foru Aldundiaren Alkarbide bilguneak koordinatuta, zazpi hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, portugesez, frantsesez, ingelesez, errumanieraz eta arabieraz) kalera-tuko dute gure artera bizitzera etorri diren atzerritarrei zuzendutako liburuxka eta, besteak beste, Euskal Herriko hizkuntza zein den, beharra aurkitzeko jarraibideak, bertoko kultura, hezkuntza sistema, euskara ikas-teko ikastaroak, diru-laguntzak eta telefono interesgarriak aipatuko ditu. Erroldatzera doazen etorkinei emango zaizkie gidak eta immigrazio zerbitzuetan, gizarte zerbitzuetan zein turismo bulegoetan banatuko dira.

Bizkaiko hainbat udalerritan, tartean Erandion, banatzeko 16.000 gida argitaratu dira guztira. Busturialdean eta Lea-Artibain ere kaleratuko dituzte (7.000 ale eskualde bakoitzean).



Etorkinei zuzendutako 2.000 gida banatuko dituzte Erandion

Orain dela urte bi, antzeko egitasmoa ipini zuten martxan makina bat herritan: etorkinentzako eskuko hiztegia. Liburuak eguneroko bizimoduan erabiltzeko 200 bat berba batzen zituen (zenbakiak, agurrak...). Gida berria, beraz, aurrekoaren jarraipena eta talde horiek gizarteratzeko tresna izateko gura dute Alkarbide bilgune-koek.

2006an, 1.300 etorkin zenbatu zituzten Erandion, 2005ean baino %60 gehiago, orduan 674 zenbatu zituzten eta. Gehienak Hego Ameriketakoak ziren. m

### Datu batzuk

- Erandioko biztanleak guztira ... 24.104
- Etorkinak .....1.338
- Europakoak .....162
- Argentinakoak .....477
- Kolonbiakoak .....200
- Ekuadorrekoak .....144
- Perukoak .....95
- Brasilgoak .....48
- Venezuelakoak .....34
- Paraguaiakoak .....29
- AEBetakoak .....10

## Alokairu merkeagoak

Sustapen publikoko etxebizitzaren %25 alokatzeko aukera edukiko dute Erandioko gazteek



Eraikitzen diren sustapen publikoko etxebizitzaren kopuru zehatz bat alokairura bideratuko dute

**Erandion** eraikitzen den sustapen publikoko etxebizitzaren %25, hau da, 4tik 1 alokatzeko aukera edukiko dute Erandioko gazteek. Hain zuzen ere, etxebizitza sozialen beharra da gaur egun udalerririk pairatzen duen arazorik garrantzitsuenetakoa, horien kopurua murrizta da eta. Azken urteotan sustapen publikoko etxebizitzaren hainbat zozketa egin dituzte, Goikoa auzoan esaterako.

Orain, aldiz, eraikitzen diren etxebizitzaren kopuru zehatz bat alokairura bideratuko dute, joan den hilean abian ipinitako Gazte Planari jarraituz. Alokairuak prezio baxukoak izango dira, gazteek euren kabuz bizitzeko aukera eduki dezaten. Etxetik alde egiteko arazoak edukit-

zen dituzte gazteenek Euskal Herri osoan, ez bakarrik Erandion, etxeen prezio garestiak direla eta.

### Gazte Plana

Etxebizitzaren alokairuena Gazte Planak aurreikusten dituen neurrietako bat da; izan ere, udalerriko gazteen beharriari aurre egiteko proposamenak batzen ditu dokumentuak. Iazko maiatzean jarri zuten martxan plana eta Bizkaiko Foru Aldundiak 10.800 euroko diru-laguntza eskaini dio Udalari baliabide guztiak aplikatzeko. Horrela, hainbat esparrutan (langabezia, hezkuntza, kultura...) zenbait ekintza aurrera erango ditu, herriko gazteen bizimodua hobetzeko m

### HERRI MUSIKAREN I. JAIALDIA EGINGO DUTE MARTXOAREN 31N

Euskal Herrian ohikoak diren musika tresnak entzun ahal izango dira martxoaren 31n, Erandion, antolatu duten lehenbiziko musika herrikoien jaialdian: alboka, dultzaina, txalaparta, trikitixa, txirula, txistua... Horrez gain, bertsoari eta dantzari eskainitako emanaldiak ikusteko aukera izango du bertaraten denak. Jaia 11:30ean hasiko da, Altxagatik musikariak egingo duten kalejira batez. Ondoren, hainbat ikuskizun egongo da herriko hainbat lekutan. Arratsaldean, berriz, erromeria Irailaren 23a plazan.

### ASTRABUDUKO AZOKAN ERAIKIKO DUTE ANBULATORIO BERRIA

Astrabuduko azoka jartzeko erabiltzen den lursaila Osakidetzari eman dio Erandioko Udalak, bertan anbulatorio berria eraiki dezan. Alderdi guztiak, PPK salbu, onartu dute neurria. Auzokoek aparkaleku moduan erabiltzen dute lur eremua azoka ez dagoenean, beraz, erabakiak 120 aparkaleku kentzea ekarriko du. Halere, erabili barik geratzen den tartean lurpeko aparkalekua eraikitzeko aukera aintzat hartuko dutela jakinarazi dute udal ordezkariak.

### ERANDION EGINGO DUTE MUSIKALDIAREN VIII. EDIZIOA

53 musika eskolataro ikasleak batuko dira datorren maiatzaren 26an Erandion egingo den Musikaldian. Jaialdiaren zortzigarren edizioa izango da aurtengoa eta guztira 2.500 musikari gazte parte hartzea espero dute antolatzaileek. Egitasmoak 87.000 euroko aurrekonua edukiko du. Auzo gehienetan, Altxagan, Astrabuduan eta Goikoan hain zuzen ere, kontzertuak eta kalejirak ikusteko aukera egongo da. Gainera, Erandioko Musika Eskola jaialdiko protagonista nagusia izango da eta mota guztietako musika egongo da entzungai.

**Arasa**  
Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

**Basolanak**  
• Zuhaitzen landaketa  
• Podak  
• Itxierak  
• Garbiketak  
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitertarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

## SOPELANAKO GAUAK PROGRAMA HASI DA BERRIRO ERE

Joan den martxoaren 23an eman zitzaion hasiera Sopelana Gauak-en aurtengo programazioari. Ekintzak barikuetan burutuko dira, Abadesoloko kiroldegian, 22:30etik 1:30era. Gazteek makina bat tailerrean zein jardueran parte hartzeko aukera edukiko dute: dantza, aerobic, scalextric, play station... 14 urte baino gehiago daukatenek ahal izango dute ekintzetan parte hartu. Ekainaren 22an izango da azken eguna eta egun horretarako jaialdi erraldoia prestatu dute antolatzaileek.

## LITERATUR SARIAK BANATU DITU ITZARTU EMAKUMEEN ELKARTEAK

Emakumearen Astearen zehar, hainbat ekintza antolatu ziren Sopelan, tartean, literatura lehiaketa. Ergiña Astorkiza garaile atera zen euskarazko narrazio laburra sailean, *Nekane* lanagaz. Poesian, berriz, Leire Aspiazu izan zen irabazlea, *Itxi begiak lastana* olerkiagaz. Gaztelaniaz, azkenik, Blanca Mediavilla gailendu zen. Bestalde, pintura lehiaketan, Chelo Gutierrezek jaso zuen garaikurra. Emakumeen omenez egindako ekintzek parte hartze zabala eduki zuten Sopelan: antzerkia, zinea, hitzaldiak, etab.

## NAGUSIENTZAKO ETXEAK

Etorkizunean, 60 urte gorakoentzako tutoretzapeko etxebizitza lagunduak edukiko ditu Sopelak. 23 izango dira datozen urteetan Sabino Arana kalean eraikiko dituzten apartamentuak. Eraikinak bost solairu edukiko ditu, horietako bi aparkaleku eta biltegiertzako. Lehenbiziko solairuan, berriz, harrera-lekua, bulegoak eta erabilera anitzeko aretoa jarriko dituzte. Gainerako solairuetan etxebizitzak joango dira, 30 eta 45 metro koadrokoak. Eraikinean adinekoak edozein momentuan laguntzeko prest egongo diren langileak egongo dira

## Ura aurreztu!

Etxean kontsumoa murrizteko gailuak  
oparituko ditu Sopelako Udalak



Sikateari aurre egin gura dio egitasmo berriak

**Gure planetako** beste leku batzuetan bakarrik ez, Euskal Herrian ere klima aldaketa ematen ari dela ikusita (aurten egin duen euri apurrak alarma gorria piztu du gure urtegi batzuetan), Bizkaiko beste hainbat udalerrik ura aurrezteko abian jarritako kanpainagaz bat egin du Sopelako Udalak. Hain zuzen ere, Bilboko Ur Patuergoak sikateari aurre egiteko eta uraren kontsumoa murrizteko hartutako neurriak kontuan hartuko ditu Udalak.

Hortaz, udal ordezkariak aurrera eroango dituzten ekintzek helburu bi izango dituzte: alde batetik, fakturak ordaintzeko or-

duan sendi baten gastu ekonomikoa murriztu daitekeela modu praktikoan erakutsi gura dute; beste aldetik, gizateriaren hondasuna den uraren faltak heriotza ugari eragiten duela nabarmendu.

Besteak beste, etxean ura aurrezteko gailuak oparituko ditu Udalak. Zehazki, komuneko zein eskaratzeko iturrietan eta dutxan jartzeko eko-murriztaileak dira. Tresna horiek eskuratu gura duenak [al21@sopelana.net](mailto:al21@sopelana.net) helbidera posta elektronikoko bat bidaltzerik besterik ez dauka, bere izena eta abizenakaz. Eskariak martxoaren 30a baino lehen egin beharko dira. m

## Esaera zaharrak bizirik

Joan den martxoaren 17an, Esaera Zaharren XVI. Txapelketa egin zuten Sopelan. Jende ugari gerturatu zen jaira eta lehiaketan 26 bat taldek parte hartu zuten, hau da, 100 bat lehiakidek. Aurtengo txapelketan, baina, sopoloztarrek ez zuten zortetik izan eta Portugaleteko *Jarrilleroak* izan ziren garaileak. Urtero legez, bertsoak zein esaera zaharrak izan ziren txapelketaren oinarriak eta euren doinuak plazaratzeko aukera eduki zuten, besteak beste, Xabi Paya eta Oihana Bartra bertsolariak.



## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
[info@didakhilton.com](mailto:info@didakhilton.com)

## 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

**LAIKAK  
Taberna**

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94 676 03 28

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78  
T.: 94 491 27 34

## 80 APARKALEKU BERRI BASOTXU ETA AXGANEN

Abian jarri ditu Berangoko Udalak Basotxu eta Axgane inguruan 80 aparkaleku berri egiteko lanak; horrela, Arene Kalean sortu diren 50 aparkaleku berriei gehituko zaizkie. Udalak aintzat hartzen duen *Agenda 21* egitasmoaren barnean egingo dira hauek guztiak, herriak auzo jakin batzuetan autoak uzteko daukan arazoari erantzun ahal izateko. 60.000 euroko aurrekontua izango du proiektu honek.

## MARTXAN DAGO URIBE KOSTAKO BEHARGINTZA ZENTRO BERRIA

Martxoaren hasieran zabaldu zituen ateak Uribe Kostako Behargintza zentro berriak. Karabiazpi kalean dago, Jubilatuen etxe ohian. Behargintza eskualdeko garapenerako agentzia da, 2001ean sortu zen eta hiru esparrutan lan egiten du: enplegu zerbitzua, enpresentzako aholkularitza zerbitzua eta eskualdetik bultzatutako proiektuak laguntzeko zerbitzua. Kokaleku berriak, eskaintza zabalagoa egiteko aukera emango die langileei. Gainera, kalitatea eta etenbako hobekuntza izango dira zentro berriko premisa nagusiak.

## 12.000 EURO VICENTE FERRER FUNDAZIOARENTZAT

Hiru urteko lankidetzak akordioa sinatu du Berangoko Udalak Vicente Ferrer Fundazioarekin. 12.000 euro emango ditu urtero, hainbat kooperazio egitasmotan erabiltzeko. 1996an sortu zen Fundazioa eta Indiako eremu behartsuenen garapenean dihardu. Gizarte zatiketaz baztertua da bere helburu nagusia. Udalak eta Fundazioak aurrez eginiko lankidetzari esker, Anantanpuren emakume ezinduentzako bost egoitza eraiki dituzte dagoeneko.

## GIS sistema berritzaileak

kainuetako pitzadurak zehazki kokatuko ditu



Sistema honen bitartez berehala jakin ahal izango da pitzadurak non dauden

Berangoko Udalak, GIS informaziorako sistema geografikoa jartzen ari da udalerriko ur sarean, saneamendu azpiegituraren kartografia digitala egin ahal izateko. John Snow doktoreak eman zituen 1854an sistema honen sorrerarako lehengo pausoak, nahiz eta ordutik hona asko garatu den. Londreseko Soho auzoan kolera izurritea egon zen garai hartan, uraren bidez zabaldu zena. GIS sistemari esker, Snowk izurritearen iturria zen putzua kokatzea lortu zuen.

Berangoko alkate Miren Dobaranen ustez, "urrats garrantzitsua da udalerriko

esparru guztiak eguneratzeko egitasmoan". Herriko edozein puntutan pitzadura bat egonez gero, zehazki non dagoen jakin ahal izango da berehala. Izan ere, langileek, ordenagailuan tekla bat sakatu besterik ez dute behar herriko tuberia guztiak non dauden jakiteko.

Sistemaren eguneratzeak 20.000 euroko aurrekontua izan du. Instalazio lanak martxan daude dagoeneko eta Estudios GIS enpresa da azpiegituren arduraduna. Hala ere, sistema korapilatsua da eta, horregatik, maiatzera arte ez da abian jartzeko prest egongo. m

Aizkoa Olabarrieta > Barrikako kultur etxeko teknikaria

"Herriko **bizilagunentzako topalekua** da Barrikako kultur etxea"



Aizkoa Olabarrietak urte bi daroaz Barrikako kultur etxean beharrez

Barrikako kultur etxeko teknikaria da Aizkoa Olabarrieta. "Herriko jende askok ez daki oraindik hemen kultur etxea dagoenik; bertokoak leku batetik bestera autoan doazenez..." hasi ditu Aizkoak bere azalpenak, desenkusatu guran edo. Baina benetan ez dauka horren beharrik, Barrikakoa, txiki-txikia izan arren (oraingoz behintzat ez dute gehiagorik behar), oso ondo antolatutako kultur etxe dotorea da eta. Bertan, denetarik aurki daiteke: kzgunea, liburutegia, ikasteko gela...

Era berean, makina bat dira bertako beharginen eskaitzen dituzten zerbitzuak: liburuen mailegua, ikastaroak, jaiak, umeentzako ekintzak... "Gainerako kultur etxetan egiten diren antzeko gauzak eskaintzen ditugu, batez ere umei zuzendutako jarduerak". Barrikako jaietako ekintza batzuk ere antolatzen dituzte: sanjuanak, sanblasak, Ander Deuna... "Ekainean nekazal azoka prestatzen dugu eta jaien

aurreko domekan, berriz, kanpoko pintura lehiaketa. Gehienbat jende gazteak hartzen du parte, ume piloak. Horregatik, helduak animatu gura ditugu".

Bestalde, Kultur Etxearen helburua Uribe Kostako Mankomunitatearen eskaintzak bideratzea izateaz gain (birziklatze

**«Zerbitzu piloa eskaintzen du Kultur Etxeak: kzgunea, liburutegia, ikastaroak...»**

kanpaina, olioarentzako edukiontzia...), herritarrentzat topaleku izatea ere badela azpimarratu du Aizkoak. "Herria oso sakabanatuta dago eta bizilagunek ez dute elkar ikusten. Eurenentzako topalekua da hau".

Bertara doan jendeak "zerbitzu nabiko bateragarria" lortzen duela nabarmendu du harro teknikariak. "Galdezka datorren jendeak hasiera batean behar zuen informazioa baino gehiagorik alde egiten du hementik". m



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2  
ALGORTA



**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



VIEJO

kopak eta  
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

**cianoplan** Reprografía  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Ariguo Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

Imprimatze eta plano kopiak •  
Karteak kolorez eta z/b •  
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •  
Fotokopiak kolorez eta z/b •  
Era desberdinetako koadernaketak •  
Plastifikazioak •  
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •  
ermarkaketak •



## FUTBOL ZELAI BERRIA EGINGO DUTE URDULIZEN

Dena ondo baldin badao, datorren denboraldirako futbol zelai berria edukiko dute urduliztarrek. Hori Udalak aurrera atera nahi dituen kirol-instalazioen lehenengo pausoa besterik ez da. Aldagelak, komunak, arauzko futbol-zelaia, harmaila publikoak eta behin-behineko taberna eraikiko dira lehenengo fase honetan. Horrek guztiak, 1.751,88 metro koadro erabilgarri izango ditu. 2008an, bigarren fasearen barnean, igerilekua eta honek beharrezkoak dituen aldagelak eraikitzea aurreikusita dago. Azken fasean, kiroldegia egingo dute, baina, honetarako, ez dago data zehatzik oraindik.

## ARAZOAK PLENTZIAKO METRO GELTOKIKO PASABIDEAN

Bi hilabeteetan, zazpi istripu izan dira Plentziako geltoki parean dagoen pasabidean. Honen aurrean, erantzun bat eskatzen dute herritarrek. Talde independenteak deituta, 150 pertsona inguru bildu ziren martxoaren 11n Metro Bilbaoko geltokian, oinezkoen pasabide jasoa eskatzeko. Horrez gain, autobusari espaloian gelditzeko debekua jartzea ere eskatzen dute. Auzokideen ustez, autobusek gune hori geltoki bezala erabiltzeak jende pilaketak sortzen ditu eta hauek arriskutsuak gerta daitezke. Bestalde, Udaletxeak kaleratutako komunikatu baten arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak pasabidearen arazoa bakarrik ez, baizik eta bidegurutze osoaren arazoa konpondu du dagoeneko.

## GORLIZ

### Oporrak bakean egitasmoa berriro martxan



Gurean egondako haur saharauiak

**Uztailaren 7tik abuztuaren 7ra**, Saharako Güera kanpamenduko gazteak Gorlizera hurbilduko dira, *Oporrak bakean* egitasmoaren barnean. 2001ean jarri zen martxan proiektu hau, Gorlizko herriaren eta saharauien artean burututako senidetzearen ondorioz. Hiru hilabetez, desertuko bero itogarritik urrundu eta gure hondartza eta mendiez gozatzeko aukera izango dute 7 eta 12 urte bitarteko hainbat umek.

Martxoaren 23an amaitu zen izena emateko epea eta antolatzaileak pozik daude

aurtengo parte hartzearekin: *"Familia gehienak errepikatzaileak dira"*. Hasierako egunak ez dira errazak izaten, *"umeak ez daude obhituta eta beldurtuta etortzen dira"*, baina hala ere, oso esperientzia atsegina dela uste dute familiek.

Gorlizko Udala bidaien gastuez, asegu-ruez eta begiraleen soldatez arduratuko da eta Eusko Jaurlaritzaz azterketa medikoez. Gainera, ongietorri berezia, hitzaldiak, irteerak eta beste hainbat ekintza antolatuko dituzte umeentzat. <sup>m</sup>

# Mar. 26 - api. 15

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

► **Elisabet Varonaren lanak.** Erromoko erakustaretoa. Apirilaren 4ra arte. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00.

► **Angel M<sup>a</sup> Ruizen lanak.** Algortako erakustaretoa. Apirilaren 2tik 21era arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

### PLENTZIA

► **Euskal pilota herriz herri.** Goñi Portal. Martxoaren 31tik apirilaren 9ra arte.

## ZINEMA

### GETXO

► **El taxista ful.** Getxo Antzokia. Martxoak 28, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.

► **Kebab connection.** Azpitoludun jatorrizko bertsoia. Getxo Antzokia. Martxoak 30, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.

► **Vida y color.** Getxo Antzokia. Apirilak 4, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.

► **Perez gure sagutxo hori.** Umeentzako zinea euskaraz. Getxo Antzokia. Apirilak 8, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

► **Peligro: menores sueltos.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Apirilak 10, martitzena. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

► **Kubo magikoa.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Apirilak 11, eguaztena. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 2,10 euro.

► **Remake.** Getxo Antzokia. Apirilak 11, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.

► **Bajo cero.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Apirilak 12, eguena. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

► **Asterix y los vikingos.**



► Euskal Literatura

### Irati Jimenez martxoko Irakurzaileen Txokoa

Martxoaren 28an, Irati Jimenez idazle gazteak *Bat, bi, Manchester* bere liburuaren gainean jardungo du Aldai Patronatoan. Hil honetatik hasita eta abendura arte, Irakurzaileen Txokotik igaroko diren idazleen zerrenda zabala osatu dute Nahikari Ayo, Josu Larrañaga eta Ana Musapaldi egitasmo antolatzaileek. Besteak beste, Jon Maiak, Xabier Olarrak, Laura Mintegik eta Sonia Gonzalezek euren zein beste batzuen lanen inguruan berba egiteko aukera izango dute. Irakurzaileen Txokoaren iazko edizioak arrakasta nahikoa eduki zuen eta deialdietan 30 bat lagun batzen ziren solasaldietan parte hartzeko.

Informazio gehiago: [www.blogari.net/egizu](http://www.blogari.net/egizu)

• **Non:** Aldai Patronatoa (Algorta) • **Noiz:** martxoak 28 • **Ordua:** 20:00

Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Apirilak 13, barikua. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

► **Thumbsucker.** Azpitoludun jatorrizko bertsoia. Getxo Antzokia. Apirilak 13, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.

► **Eragon.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Apirilak 14, zapatua. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

► **La edad de hielo.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Apirilak 15, domeka. 12:00, 17:00 eta

19:00. Sarrera: 2,10 euro.

### LEIOA

► **Sueños de Shanghai.** Auditorium. Martxoak 27, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

### PLENTZIA

► **Confidence.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Martxoak 30, barikua. 21:30.

► **El paseo de la princesa.** Umeentzako zinea. Goñi Portal. Martxoak 31, zapatua. 18:00.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Y al fondo... el sol en el horizonte.** Totum. Getxo Antzokia. Martxoak 30, barikua. 19:30. Sarrera: 3 euro.

► **Divinas palabras.** Getxo Antzerki Eskola. Getxo Antzokia. Apirilak 1, domeka. 19:00. Sarrera: 3,50 euro.

## BESTEAK

### GETXO

► **Ballet Biarritz Gaztea II.** Getxo Antzokia. Martxoak 31, zapatua. 20:00. Sarrera: 9/7 euro.

► **Kontularien kluba.** Algortako kultur etxea. Apirilak 13, barikua. 19:00. Sarrera dohainik.

► **VII. Emakumeak Musikan jaialdia.** Areetako Andres Isasi Musika Eskola. Apirilak 14, zapatua. 20:00. Sarrera gonbidapenagaz.

### LEIOA

► **Dantza: Cuando uno quiere y el otro no.** Auditorium. Martxoak 29, eguena. 20:00. Sarrera: 6 euro.

► **Dantza: Bideak.** Auditorium. Martxoak 30, barikua. 20:30. Sarrera: 6 euro.

### BERANGO

► **Paint Ball bataila.** Morga. Apirilak 14, zapatua. Izena emateko apirilaren 11ra arte. Prezioa: 20 euro errolatutakoak, 30 euro errolatu gabek.

### GORLIZ

► **Urdaibaira txangoa.** Euskara Zerbitzua. Apirilak 3, martitzena. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.

### ERANDIO

► **Kontzertua: Botxo Boogies.** Altzagako azoka. Martxoak 30, eguena. 22:00. Sarrera dohainik.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



## ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!


BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



## Billano lurmuturrean

36ko Gerra hasi zela 70 urte bete dira aurten. Billanoko kanoiak, tunelak eta lubakiak gerra haren azaleko zauriak besterik ez dira; barrukoak, larrienak, txertaturik geratu dira-eta hainbat pertsonaren erraietan, irten ezinean. Borroka hartako galtzaileek eraiki zuten Gorlizko forte txikia, menderatzaileek behartuta, II. Mundu Gerrako aliatuen balizko eraso bati aurre egiteko. Hori, baina, ez zen inoiz gertatu.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



## Arbolaren eguna Areetan

Ekologia, ingurumenaren egoera larria, kezka berriak, gaur egungoak direla pentsatzeko joera izaten dugu. Baina oker gabiltzala ederto adierazten du 1927an (hau da, orain dela 90 urte) Areetan ateratako argazki honek. Zuhaitzaren eguna ospatu zuten han eta gaur egun Txurruka deitzen dugun inguruan arbolak landatu zituzten.



AREETA, 1927  
Argazkia: Getxoko Udal Liburutegia

[berbetan]

Gustukoak izaten ditugu homo erectus, homo habilis, nenderthal eta enparauen gaineko berriak. Gure jatorriez jakinmina daukagu, elkarrizketa hasieran Juan Luis Arsuaga paleontologoak adierazi duenez. Berak ere badu bere jatorria, Bilbon hain zuzen. Bertan jaio eta bertan bizi izan zen unibertsitate garaira arte, ikasle garaira arte esan gura dugu. Gero, Madrilera joan zen, eta han ere unibertsitateakiko loturari eutsi: gaur egun, paleontologia katedraduna da Complutensean. Zientzialari mediatikoa dela ere irakurri dugu inon. Batik bat, Burgosko Atapuercan hamaika aztarna uztea erabaki zuten aurrehistoriako gizakiei zor die ospea. Munduan ez ei dago giza fosilak hain oparo eman duen beste aztarnategirik, eta besteak beste horri esker dugu Arsuagaren izena ezagun. Zientzialariak nahiko ahaztuta ditu gure gizarteak, “zabaltzaile” etiketa ipini artean behintzat. Arsuagari ere ezarri zitzaion behinola etiketa hori, baina berak uko egiten dio, ez duelako uste zientzialariek zabalkundea egin dezaketarik. Bilbon esan zuen, “zientzia dibulgatearen erronka” izeneko mahai inguru batean, zientzialariek zientzia besterik ez dutela egiten. Gero, elkarrizketa hau eman zigun.

# Juan Luis Arsuaga

## Bide bila iraganeko lanbroan

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zergatik erakartzen gaitu horrenbeste paleontologiak, hau da, iraganak?

—Hara, jatorriek erakartzen gaituzte, oro har, eta paleontologia horretaz arduratzen da. Jatorri guztiek liluratzen gaituzte: unibertsorenak, biziarenak, gizakio-nak...

—Zientziaren arlo askotan agerikoa da erabilpen praktikoa. Paleontologiak badauka?

—Asko. Lehenik eta behin geologian, estratuak datatzeko eta abar. Baliabide naturalak bilatzeko ere bai, petrolio esaterako. Eta orain, ustekabeen, beste erabilpen bat agertu da: klima aztertzea. Iraganeko klimak paleontologiari esker ezagutzen dira.

—Hala ere, beharbada herritar gehienek arreta bereganatzen duena, eta horregatik dira ezagunak zu bezalako zientzialariak, giza espeziearen jatorria da...

—Bai, badago lilura hor. Hori ezaguerari

dagokion zientziaren alderdia da, erantzunak eta azalpenak bilatzen dituenak.

—Eta horrek zer on ekar diezaiokie gure etorkizunari?

—Gure etorkizunari, ez dakit. Geuk egiten dugu etorkizuna, geuk hartzen ditugu erabakiak. Eta ezagupenek baldintzatu egiten gaituzte erabakitzeko orduan.

### “Uste dut aurrehistoriako gizakiak adimentsuak eta ameslariak zirela”

—Ezagupenek, beraz. Ondo ezagutzen dugu geure iragana?

—Nahiko ondo.


—Atapuercako aztarnategietako zuzendarietako bat zara. Zer eman digu Atapuercak hain ospetsu izateko?

—Atapuercako aztarnategiak oso ezagunak dira denbora luzearen erregistroa gordeta dagoelako bertan. Gizakiek Europan izandako historia osoaren berri

ematen digute, orain dela milioi bat urte baino gehiago ailegatu zirenetik. Eta batez ere, munduko beste edozein aztarnategirik baino giza fosil gehiago eman duelako, eta ematen duelako oraindik.

—Pentsa liteke Afrikan egon beharko lukeela fosil gehien, gizakia han sortu bazen...

—Halaxe da oso antzinako jatorriari dagokionez, orain dela milioika urte. Baina Europan milioi bat urte baino gehiago da gizakiak daudela, eta azken milioi hori garrantzitsua da, tarte horretan agertu delako gure espeziea, eta neanderthalak, kontzientzia eta hizkuntza garatu dira. Gugandik hurbilen dagoen aroa da, eta aro horretan agertu dira gure espezieak, *Homo Sapiens*ak, dauzkan ezaugarri





nagusiak. —Neanderthalak aipatu dituzenez gero... Sortu eta desagertu diren giza espezie guztietan, zergatik lilurutzen gaituzte horiexek gehien?

—Haien historia liluragarria delako, izan. Gurea ez den espezie bat, baina gauza askotan gure antzekoa dena. Haiekin batera bizi izan gara, haien aurka leihatuta gara. Estralurtarren antzeko zoezer, nolabait esatearren: gurea ez den beste espezie adimentsu bat.

—Orain gutxi, aurrehistorian girotutako nobela bat idatzi duzu: *Al otro lado de la niebla* (Lanbroaren bestaldean).

—Izan ere, iruditzen zitzaidan nik irakurri gura nuen aurrehistoriaren gaineko nobela idazteke zegoela.

—Eta zer da zuk irakurri gura zenuena, eta aurreko nobeletan topatu ez zenuena?

—Uste dut idatzi direnetan, edo nik irakurri ditudanetan behintzat, ekintza asko egoten dela, abentura asko, baina ez dutela agertzen aurrehistoriako gizakien adimen-mundua. Mundu mitikoa da, errealitatea eta fantasia nahastuta ageri direna. Iruditzen zitzaidan nobela bakar batek ere ez dituela garai hartako gizakiak benetan ziren bezala, edo nik irudikatzen ditudan bezala, erakusten. Alegia, sormen handikoak. Argialetzekoek esaten zidaten -eta gero beste batzuek ere bai- gizaki haiek oso adimentsuak izango balira bezala agertzen nituela. Halakoxeak zirela uste dut eta... Adimentsuak, eta artista handiak, oso argi dago-eta artista handiak zirela, eta oso ameslariak. Mitoz inguratuta bizi zirela iruditzen zait.

—Uste horrek aurkikuntza zientifikotan dauka oinarria?

—Dauzkagun datuetan dauka oinarria, lehenik eta behin. Aurrehistoriako artea espiritualtasun handikoa dela pentsatzen dut, eta teknika aldetik ere bikaina, gaindiezina. Gerora arte-adierazpen asko egin da, baina ezin daiteke esan haien gaitasuna gaintu dugunik. Hori, alde batetik. Bestetik, nahikoa da herri batzuen leien-

da eta mitoak ezagutzea. Ordukoen antzeko bizimoduarekin gureganaino ailegatu diren herrienak, hain zuzen. Hau da, ehiza, bilketa... Herri horiek ezagututakotan, ezin esan gu baino gutxiago direnik, edo primitiboak direnik. Aitzitik, gauza askotan gailendu egiten zaizkigu. Mundu hori deskribatu gura nuen nik.

—Pentsa liteke, ordea, aurrehistoriako bizimoduak oso praktikoa izan behar zuela, ezta? Egun osoa biziraupena segurtatzeko borrokan...

### “Ezinezkoa da zientzialari batek zientzia zabalkundea egitea”

—Gurea bai praktikoa! Dena dugu ondo antolatuta, ordutegi zurrunen arabera. Zortzietan han egon behar, bederatzietan hemen... Ez daukagu fantasiarako tartetxorik, ez eta berba egiteko, harremanetarako ere. Haiek askoz denbora gehiago zuekaten horretarako.

—Nobela hori baino lehen beste liburu batzuk argitaratu dituzu, saiakerak denak. Zientzia zabaltzeagatik zara ezaguna, baina aurrekoan, Bilbon, zabalkunde berbagaz bat ez zatozela esan zenuen...

—Ez nator hitz horrekin bat zientziari dagokionez. Esan nahi dut ezinezkoa dela zientzialari batek zabalkundea egitea. Zientzialari batek zientziaz hitz egiten du,

### “Komunikabideetako arduradunek uste dute zientzia ez dela interesgarria”

bere ikuspegia daukalako gai batez. Zabalkundea, ustez, objektiboa da: norbaitek azaldu egiten du gai batez ezagun dena. Baina zientzialari batek gai horretaz daukan iritzia azaltzen du. Ezinbestean. Bere ikuspegia ematen du, eta ez da neutrala. Idaztean edo hitz egitean, ni orain hitz egiten ari naizen bezala, zientzialaria bere teoriak azaltzen ari zaizkio irakurlari

edo entzuleari, hau da, espezialista moduan ari da, ulertzeko moduko hitzak erabili arren.

—Horixe esan gura nizun: zientzialariak beti zientzia egiten badu ere, hizkuntza mota desberdinak erabiltzen ditu hartzailearen arabera.

—Halaxe da, ez dira gauza bera aldizkari espezializatu baterako idaztea, gai zehatz bati helduz, edo zabalkundea -deitu nahi duzun moduan- egitea. Aldizkarietan ezin dira sekulako mordoiloak idatzi, norberak

daukan datua azaldu behar da, eta horren ondorioak. Ez dago interpretaziorako lekurik. Zabalkunde deritzonak, aldiz, aukera ematen du gauza gehiagoz jarduteko, eta argitalpen zientifiko batean onargarria dena baino gehiago espekulatzeko.

—Orduan zuk gogoan duzu jende gehienarengana ailegatu beharra...

—Nik gizartearentzat idazten dut eta gizartearentzat lan egiten dut. Ez didate ordaintzen bakarrik nire lankideekin harremanean egon nadin. Nor izan behar da gure lanaren hartzailea, gizartea ez bada?

—Hala ere, zientzia gizarteari azaltzea oso gaxa dela ere esan zenuen Bilbon...

—Zientziak, zientzia zabaltzeak, badauka

arazo bat, eta normalean ez gara hartaz konturatzen. Eta arazo horrek eragiten du, hain zuzen, aurkikuntza zientifikoak egitea hain lan neketsua izatea.

—Eta zein da?

—Aurkikuntza zientifikoak ez direla agerikoak. Horregatik behar izan dugu hainbeste denbora eta hainbeste lan eboluzioa edo big banga aurkitzeko. Ez zen erraza.

Errealitatea ez da geuk ikusten dugun bezalakoa. Begien bistakoaz zalantzan egon behar dugu beti, eta geure buruari galde-tu ea benetakoa ote den. Hori esplikatzeko zaila da, noski. Badira erraz esplikatzeko diren gauza batzuk, baina fisika kuantikoa, esaterako, ez. Fisika kuantikoa ez duelako zentzu komunarekin bat egiten. Bestela, denok jakingo genuke hori zer den, baina fisikari espezializatuek baino ez dakite. Asko ikasi behar da fisika kuantikoa ulertzeko, beraz ez da hain gauza sinplea. Norbaitek esan dezake: dinosaurioek odol beroa zeukaten. Kito. Baina jakina, horren zergatia azaldu behar da. Niri beti galdetzen didate zelan kalkulatzeko den fosilen adina. Erantzuna: metodo fisikoak erabiliz. Horraino, arazorik ez. Baina datazioa egiteko erabiltzen diren isotopo erradioaktiboen berri eman

nahi baduzu, kontua ez da hain erraza.

—Orduan, zientzialariak abadeen antzekoak direla esan daiteke? Ontzat eman behar baditugu haiek esandakoak, zergatia ulertu barik ere...

—Uler daiteke, baina ahalegina egin behar da. Niri ez zaizkit gustatzen “zientzia jostagarria da” eta halako esaldiak. Karbono-14ren metodoa ulertzeko, esaterako, arreta eta ahalegin apur bat behar dira, eta horrek denbora eskatzen du. Horrexegatik esan ohi dut zabalkundea, zabalkunde esaten diogun hori, ez dela maila deskriptibo hutsetik harago joaten gehienetan. Baina benetako garrantzia daukana azalpena da. “Kontinenteak mugitu egiten dira” esan dezake norbaitek, eta sinestu dezatela nahi badute; baina plaken tektonika azaltzea beste kontu bat da, ez delako begi-bistakoa.

—Kazetariok ere badaukagu erantzukizunik, beharbada, zientzia jende arruntarengana helarazte horretan. Askotan, ordea, ez du ematen oso ospe ona daukagunik zientzialarien artean.

—Ez nago ildo horretan. Nik ez ditut kazetariak kritikatzeko, komunikabideetako arduradunak baizik. Gehienek uste dute badaudela gizarteari interesatzen ez zaizkion gai batzuk. Ematen du hemen De Juanarena baino ez dela interesgarria.

Badaude kulturarekin edo zientziarekin zerikusia daukaten gai batzuk, komunikabide gehienetako arduradunen iritziz jorratzea ere merezi ez dutenak, jendearen arreta erakartzeko gauza ez direlakoan. Eta uste dut hori hutsegite handia dela, jendeak jakinmina daukalako gai horiez. Jakinmin handia. m

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
 Kalea & zenb.....Herria.....  
 e-mail.....Telefonia.....

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
**Kontu zenbakia (20 digito).**

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**  
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz  
 tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



# Getxoko jaietako erregina

Tamarises hotela, 1965eko uztailaren 25a, oholtzan zazpi hautagai.  
 Getxoko Jaietako Erregina aukeratzeko ekitaldia antolatu dute agintariek.  
 Akabuan, Maria Flor Nieba andereñoa aukeratu dute neskatorik ederrena, eta beraz, jaietako erregin. Gaueko hamabi eta erdietan puntu-puntu koroa jantzi du (goiko argazkia). Jai haren nondik norakoak erakusten dituzte, hain zuzen ere, orrialdeotara ekarri ditugun erretratuek. Beste garai bateko argazkiak, beste garai bateko jai ereduaren adierazgarri, diktaturapeko garaian batzuk zelan dibertitzen ziren erakusten dutenak.

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**







## zineeskola

Oskar Fernandez

## Euskal Herria eta zineklubak (II)

Vitoriako Zinekluba" 1950.urtean sortu zuten, "Zaragozako Zinekluba"-ren ereduari jarraiki, baina bere iraupena oso eskasa izan zen, dokumental batean pertsonak biluzik agertzen ziren aitzakiaz itxi baitzuten. Hurrengo urtean, 1951n, Gasteizkoari jarraiki "Pamplonako Zinekluba" sortu zuten. Eta urte berean Donostian eta Bilbon zineklubak agertu ziren, baina zoritxarrez, azken biek oso iraupen laburra izan zuten. Bestalde, hamarkada honen erdian eliza katolikoaren eskutik sortu ziren zineklubak iraunkorrak izan ziren. Gasteizen 1955ean aurreko zinekluba suspertu zuten, oraingo honetan "Cine Forum Vitoria" izenaz. Erakunde honek garatzen zituen ekintzen artean Zine Akademiaren sorkuntza aipatu behar da. Gasteizko "Amaya Zineklubak" eta "Juventud de Vitoriak", 60. hamarkadan sortuta, 1971n "Cine Forum Vitoria" erakundearekin bat egin zuten. Aspaldian eta gaur egun, oraindik asteartero emanaldiak ditu Indautxuko Carmen Elizan oso ospetsua eta ezaguna den "Cine Club Fas"-ek, 1955. urtean Bilbon elizaren eskutik sortu zenak. Hurrengo urtean erakunde honek Espainiako estatu osoko zine klubak deitu zituen bilera batera. Topaketa honetatik Zineklubetako Federazio Nazionala sortu zen. Fas Zineklubak zituen ezaugarri klerikal eta atzerakoiei aurre egiteko asmoz, 1967. urtean Bilboko "Cine Club Universitario" sortu zen. Garai hartako egoera politikoa zela-eta "Cine Club Universitario" erakundearen inguruan beste zine klub batzuk sortu ziren: "Desvan", "Sarriko" eta "Deusto", eta horiek guztiak zine-emanaldiak burutu zituzten. 4

## Haur Zine Jardunaldiak

Ekoizpen onenetakoak gozatuko dituzte txikienek **apirilaren 10etik 15era**

**Umeei eta gazteei** begira Zazpigarren Arteak aurten pantailaratu dituen film ezagunak osatu dute bere eskaintza Haur Zine Jardunaldiek. Sei egunetan zehar eta, gehienetan, eguneko hiru ordu-tegi ezberdinetan emango dituzte pelikula. Horrenbestez, apirilaren 10ean hasi eta 15era bitartean, Aste Santuko oporraldiko bigarren aste horretan, edukiko dute txikienek non gozatua.

Hala, Haur Zine Jardunaldien egitaraua horrela osatu dute: lehenengo egunean (hilak 10, martitzena) *Peligro: menores sueltos* filma emango dute (12:00, 17:00 eta 19:00); bigarren egunean (hilak 11, eguaztena) *Kubo Magikoa* euskarazko lana izango da ikusgai (bi saio baino ez: 12:00 eta 17:00); hurrengo egunean

## «Film gehienak eguneko 3 ordu-tegi ezberdinetan eskainiko dituzte»

(hilak 12, eguena) *Bajo Cero* eskainiko dute (12:00, 17:00 eta 19:30); bigarrenean (hilak 13, barikua) *Asterix y los Vikingos* lanaren txanda izango da (12:00, 17:00 eta 19:00); eta aste-akaburako utzi dituzte *Eragon* (hilak 14, zapatua; 12:00, 17:00 eta 19:00) eta *La edad de hielo II*



Haurrak Getxo Antzokian iazko jardunaldietan

(hilak 15, domeka; 12:00, 17:00 eta 19:00).

Jardunaldion eskaintza osoa Getxo Antzokian lekutuko dute eta sarrera bakoitzak 2,10 euroko prezioa dauka.

Bestalde, ekimen horretatik kanpo, Jardunaldiok hasi baino aurreko domekan *Perez gure sagutxo hori* filma izango da gozagai euskaraz (hilak 8; 12:00, 17:00 eta 19:00). m

Ez galdu > *Kebab connection*

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: apirilaren 6a, barikua • Ordua: 22:00 • Zinema Paradiso



Film honen zuzendaria Anno Saul zinemagile alemaniarra da. Municheko Unibertsitatean zinema lizentziatura lortu zuen eta 1990ean Max Ophüls sari garrantzitsua eman zioten. Duela zortzi urte bere lehenengo film luzea zuzendu zuen. Gero, *Kebab Connection* bigarren filmari esker, Sevillako Europar Zinemaldian saritu zuten. Pelikula honen bidez garatzen duen istorioa William Shakespearek idatzitako *Romeo eta Julieta* antzezlaneari oinarritzen da. Baina jakina, erreferentzia baino ez da. Film honen protagonista turkiar etorkin gazte bat da, Ibo izenekoa. Alemanian bizi da bere familia osoarekin. Film bat egin nahi du, baina era guztietako zailtasunak topatuko ditu. Gainera, egun batean bere neska lagun alemaniarrek haurdun dagoela jakinaraziko dio. Ondorioz, Iboaren familia sutan jarriko da eta arazoak handitzen joango zaizkio.

## Emakumeak Musikan jaialdia

Apirilean andrazkoek sortutako obrak gozatu ahal izango dira Getxon



Kontzertuetarako sarrerak gonbidapen bitartez lortu behar dituzue Getxoko kultur etxeetan

**Emakumeak Musikan** jaialdia antolatuko dute Getxon apirilera, eta hiru kontzertuko egitaraua aurkeztu dute. Hala, Emakumeak Musikan elkarteak hartu du hiru eguneko jaialdia antolatzeko ardura. Elkarte hori 1985ean eratu zen emakumeek sortutako musika bultzatzeko eta sustatzeko helburuagaz. Halere, esan barik doa, ez da bakarrik andrazkoentzako elkarte bat, ekitaldietan gizonetako musikariek ere parte hartzen dute. Elkartearen beste helburuetako bat emakumez osatutako iraganeko eta gaurko musika ikertzea eta katalogatzea da, ostean entzuleei helarazteko. Lan horretarako eta urteetan zehar

emakumei ukatu zaizkien eskubideak berreskuratzeke musikologoak eta interpreteak ezinbestekoak direla azaldu dute elkartetik. Hala bada, eta helburuok kontuan hartuta errezitaldiak, hitzaldiak... antolatzen dituzte. Eta halako ekitaldi sorta bat egituratu dute Getxorako ere. Ondorengoak dira Andres Isasi Musika Eskolan hainbat garaitako emakumeen obrak joko dituztenak: Alicia Molinak (ahotsa) eta Mari Carmen Perezek (pianoa) apirilaren 14an eskainiko dute kontzertua (20:00); Manuel Mijanek (saxoa) eta Sebastian Maninek (pianoa) hilaren 20an (20:30) eta Sara Ollerosek (pianoa) hilaren 21ean (20:00).n

## diskoak

**Night city breakers**  
The killministers  
Baga-baga



Bakioko laukotearen lehenbiziko diskoa dugu *Night City Breakers*. Gaur egun euskal musikan hain modan dagoen power-pop ikutuakaz, 60ko hamarkadako garaje-rock estiloa landu dute 11 abestitan. Besteak beste, The Jam, Thin Lizzy, Supersuckers, Aterkings, Sixty Sexters, Teenage Funclub eta Frank Sinatra dira beraien eragin zuzena izan duten talde zein bakarlariak.

**Esto es Prim' La Lá**  
Prim'La Lá  
Eureka



15 urtetik beherako (txikienak zazpi urte besterik ez dauka) hiru neskatu, Macarena, Isabel eta Blanquita, dira Prin' La Lá proiektuko protagonistak. Ametsen eta fantasien eremura garamatzate diskoko kantuek, orkestra analogikoaren eta biolontxeloren soinuk lagunduta. Lan honek giro berezi batez bilduko du entzulea, magikoa eta psikodelikoa askotan.

**Bizitza... baina nota bizi?**  
Fly shit  
Gratacels records



Beragarako boskotearen bigarren lana da honako hau. Izenburuak Life... but how to Live it? talde norvegiarra aipatzen du. Karlos Osinagak masterizatu dituen hamar kantuek hardcore-punkaren eremuan sartzen dira bete-betean. Lotsa barik, abiadura handiko eritimoak jazz eta funk doinuakaz uztartzen dituzte, egitura konplexudun doinuak sortzeko. Diskoaren diseinua ere asko landu dute.

## Sweet oblivion &gt;

*Wasted lovesongs*



Alfonso Arana kantagile, abeslari eta gitarra jotzailearen proiektu berriaren izena da Sweet Oblivion. Getxoko Cujo taldeko kide ezagunaz batera Cek

(ahotsa), Pablo Isusik (baxua) Pablo Jaenek (gitarra) eta Gurruk (bateria) osatzen dute talde berria. Iazko ekain amaieran Urdulizko Tio Pepe estudioetan grabatu zuten 12 kantuko *Wasted lovesongs* (higatutako maitasun kantak) diskoa. Folk-rock estiloko lana dela diote batzuek, rock amerikar tradizionalenetik edaten dutela... Entzun eta zuk erabaki!

## Kloratita &gt;

*Etikaz mintza gaitzen...*

Kloratita taldeak hil hasieran egin ei zuen *Etikaz mintza gaitzen...* bigarren diskoaren aurkezpen kontzertua. Leioa eta Zorrotzako taldekideez osatutako taldeak pasa den urte amaieran-edo kaleratu zuen 22 kantuz osatutako lana, CDaz gain liburu eta DVDa ere badakartzana. 2003ko udazkenean sortu zen taldeak 2004koaren amaieran kaleratu zuen lehenengo lana eta geroztik hamaika disko-bildumetan sartu dituzte euren kantak. *Etikaz mintza gaitzen...* lanean etika, emakumea eta memoria historikoa dira gai nagusiak; euren sareko txotikiot diotenez "oinarizko formakuntza eta borroka ideologikorako bitarteko musikatu bat eskaini nahi izan dugu lan honekin".

Informazio gehiago: [www.kloratita.net](http://www.kloratita.net)

etorri  
eta  
ikusii!!

**MORIXA**  
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algortia

**Bihotz Handi**  
Getxoko odol emaleak

**Odola emateko egunak**  
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako Metro Plaza  
**apirilak 16**

Erromo-Areetako kultur etxea  
**apirilak 19**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 303 404

**BASALBO BASERRIA**

**JATETXEA**

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

## Udaberriko lehenengo orriak Txalaparta, Erein, Susa eta Elkarrek iragarri dituzte daborduko datozen liburu berriak

**Dagoeneko** loratu dira arbola batzuk, eta askok udaberria aurreratu egin dela diote. Arbolak loraz eta orritz apaintzen diren legez, liburu berriz atontzen dituzte argitaletxeek apalategiak udaberrian. Eta horiek ere aurreratu egin ei dira aurton, begira diezaiegun hurrengo hilabeteetan liburudenden erakuslehoetan egongo direnei. Batzuk idazle berrien estreinako lanak dira, beste batzuk berrargitalpenak, erreportajeak, ipuin bildumak, eleberriak, biografiak, euskal emigranteen jaialdiak...

Susaren proposamenak dira, berbarako: *Zakur kale* (Harkaitz Zubiri), *Kaxa huts bat* (poesia, Beñat Sarasola) *Jalgi hadi plazara* (Itxaro Borda), *Western Basque*

### «George Orwell, Itxaro Borda, Oscar Wilde, LAB sindikatua, idazle berriak...»

*Festival* (ikerketa liburua, Miel A. Elustondo). Txalapartaren eskaintzaren barruan daude: *Beste eguzkia* (Itziar Madina), *LAB sindikatuaren historia II, De profundis* (Oscar Wilde, itzultzailea Oskar Arana), *Manifestu nazionalista* (saiakera, C. Ulises Moulines, itzultzailea Joana Garmendia), *1984* (George Orwell, itzultzailea Oskar Arana), *LLuis Llach*.



George Orwell

*Siempre mas lejos* (O. Jurado eta J.M. Morales)... Elkarren otzara beteko dutenak dira: *Sua falta zaigu* (Katixa Agirre), *Giuseppe Verdi* (biografia, Itziar Gillen), *Begirada bat Kubari* (Iñaki Petxarroman), *Gauzen presentzia* (saiakera, Pablo Sastre), *Mendiminez* (zendutako mendizaleei omenaldia, Ramon Olasagasti)... Ereinek eleberririk birrargitaratuko dituzte politikoko sailean *Haur besoetako* (Jon Mirande) eta *Egunero hasten delako* (Ramon Saizarbitoria), eta *Zaldi hustuak* (poesia, Aritz Gorrotxategi) plazaratuko du. Halere, hurrengo batean egingo dugu haur eta gazte literaturaren gaineko ibilbidea. m

liburuak



**Kattalin**  
Toti Martínez de Lezea  
Erein

1500. urtean, sorgintzat hartutako 10 emakume eta gizonezko bat erre zituzten Durangon. Auzi horretan nahasturik aurkituko da Arrazolako Kattalin Goienakoa, emagin lanbidea ikastera bertara joan den gaztea. Gainera, merezi ez duen batezagaz maiteminduko da...



**Maitale koitaduen...**  
Vasco Pratolini  
Alberdania

XX. mendearen hasieran daude girotuta kronika honetako gertakariak, Italiako faxisten eta antifaxisten artean liskarrik gogorrenak eman ziren urteetan. Halere, liburu honek giro politikoaren berri emateaz gain, pertsonen ilusioak, ametsak, miseriak... ere kontatzen ditu.

[kirola]

**Angel Sanchez** > Diamir-eko arduraduna eta diseinatzailea  
“Ez dago Diamir egon ez den zortzimilakorik!”



Angel Urdulizko lantegian Igeltzera poligonon. Informazio gehiago: [www.diamir.es](http://www.diamir.es) edo 94 676 52 15

**Orain dela 25 urte** inguru sortu zen Diamir marka eta enpresa. Angel Sanchez eta Ana Sanchez neba-arrebak dira arduradunak, Angelek azaldu dizkigu hastapenak: “*Espainia aldean marka bi bakarrik zeuden; mendinako materiala saltzen zuten denda gutxi eta eskaintza ere eskasa. Material berezia erostea abentura bat zen, Andorra edo Pounaio joan behar genuen. Madrileko mendizale batzuk lumadun lo-zakuak eta eskuz egiten hasi ziren; euren jarraituz hasi nintzen ni. Orduan bizitza eskalatzeko ematen nuen, 18 urteaz egiteko horretatik ateratzen nituen sosak mendi urrunetara joateko; onain ere antzeko zerbaitetan dihardugu*”. Hori bai, enpresa hazi egin da, produktu gehiago ekoizten dituzte (100 erreferentzia) eta jende gehiago dabil lanean. “*Baina helburua bera da, naturari lotutako kirolerako produktuak egitea; seguruenik aktiboan dagoen lehenengoetakoak gara*”, dio Angelek. Hasieran Sirocco zuen izena markak, baina erregistratuta zegoenez aldatu behar izan zuten: “*Jose Luis Zuloaga eta Kike de Pablosek Nanga Parbatean gailurra egin zuten Diamir aldetik (1983) eurentzako bereziki ekoiztu genuen Nanga Parbat lo-zakua zerabiltela, beraz...*”. 24 urte

daroz merkatuan duvetezko Nanga Parbat zaku ezagunak, eta onenarikoa ei da. Orain 3 urtetik Urdulizen ekoizten dituzte produktu gehienak, aurretik Getxon, “*gure produktuek %100 UK dira*”, dio Angelek. Halere, linea batzuk (lumazkoak ez) Portugal edo Txinan egiten dituzte, “*baina jatorrietara itzultzen abalegintzen gara, Bizkaiko eta Gipuzkoako lantegiak lan egiten*”, azaldu du. Diamir markadun barruko arropa beroak, uretarakoak, lo-

### «Naturari lotutako produktuak egitea dugu helburu»

zakuak daude, trekking, kayak, mendigoizaleentzako produktuak. Angelek dioenez “*maila altuko lumazko produktuetan merkatuburu gara*”. Diamir bada zer euskal mendigoizaleentzat, Angelek ere gogoan ditu: “*Gure historiaren zati dira; Kike eta Zulu, Inurrategi anaien lehen 8.000koa eta Everesta oxigeno barik igotzen amaitu zueneko, Juanjo Sanebastian, J. C. Tamayo, A Filo de lo Imposible programakoak... eta beste hainbeste! Ez dago Diamir egon ez den zortzimilakorik!*” m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kirol moda**




**350 M<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-  
SERVITEC



& 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Kepa Urrutia** > Lemoizko Talaiia plataformako kidea

“Basordan egin gura duten zentral termikoa daukagun arazorik larriena da”



Talaiako plataformako kideak

Lemoizko auzi ekologikoei irtenbidea emateko asmoz, Talaiia plataforma eratu du bizilagun talde batek. Ahalik eta informazio gehiena herritarren artean zabaltzea da euren helburua; baita erakunde askoren asmoak zalantzan jartzea ere. Horrela, momentu honetan Lemoizek daukan arazorik larriena Iberdrolak Basordan egin gura duen zentral termikoa dela nabarmendu dute Talaiakoek.

—Zeintzuk dira Talaiaren helburu nagusiak?

—Ekologiaren aldetik guretzako garrantzitsuak diren gai batzuen inguruan behar egiteko konpromisoa hartu dugu, ondoren, lortutako informazioa herrian zabaltzeko. Jendeak informazio hori erabiltzeko aukera izatea gura dugu, gertatzen ari dena publikoki salatuz. Askotan erakutsi digute arazo horietarako politiko profesionalak daudela eta gure onerako behar egingo dutela eta hori da guk aldatu gura duguna.

—Zentral termikoa, eskualdeko zaborte-gia, etxebizitzaren arazoa... Ez al da gauza

larregi herri txiki batentzat?

—Bai, denetarik daukagu! Hirigintzari dagokionez, Lemoizko biztanleria eta hedadura kontuan hartuz gero, Udalak 70ean ematen zen “desarrollismoa” aplikatzen dagoela konturatzen zara eta ez du etxebizitza oinarritzko eskubidea denik aintzat hartzen. Orain dela hiru urte onartutako araudiaren arabera, 390 etxebizitza berri eraiki behar zituzten hurrengo zortzi urtean. Baina orduetik hona, hainbat aldaketa egin dira eta kopurua %40 handitu dute, hau da, 12 etxebizitza aurreikusita zeuden lekuan 72 joango dira... Gainera, ez dituzte biztanleriaren be-

harrizanak kontuan hartu eta tasatutako etxe batzuk kenduta, ez dute babes ofizialeko etxerik eraiki. Etxebizitza publikoa gura dugu, kalitatezkoa eta alokairu sozialari garrantzia eman beharko litzaiokeela uste dugu. Bestalde, jatan dagoen eskualdeko zaborte-giarena guretzat ere konpondu beharreko auzi garrantzitsua da. Horretarako, analisi bat egingo dugu: hondakin motak, zelako ahalmena daukan, isurtzen dituen gasak, e.a., izan ere, handik pasatzean nabarmena da metanoaren usaina. Helduko da momentu bat beteko dutela eta oraindik ez dakigu beragaz zer egingo duten.

«Jatoko zaborte-giarena ere konpondu beharreko arazoa da»

—Basordako zentral termikoarenak aparte-ko tartea merezi du.

—Daukagun arazorik larriena da. Oraindik ez dago proiekturik, baina Iberdrolak bere asmoa agertu du. Zentral nuklearra kentzeagatik 25 urte daramagu gure fakturan portzentai bat ordaintzen. Suposatzen da, gainera, kostu hori ordainduta dagoela. Aldi berean, instalazio guztiak saltzeko aukera zeukan Iberdrolak eta horrela egin zuen; baina iaz, zentral termikoa bertan ipini gura zuela erabaki zuen enpresak. Madrilgo Industria Ministeritzak, beraz, enkantean jarri du Basorda eta Iberdrolari lehentasuna eman dio.

—Zein da irtenbidea?

—Bertako eraikinak botatzea eta ingurugiroa berreskuratzea. Inork ez dauka zalantzarik Lemoizen egin behar denaren inguruan. Balio historiko eta sentimentala dauka eta herri mugimenduak zein ekologistak lortu dezaketaren frogia da. Inori ez zitzaion bururatuko gerra gorapatuko lukeen museoa Gernikan eraikitzea; bada, hemen, berdin. m

Testuak eta irudia: Xabi Bilbao

**Esakere** > “Non erromeri, han Santamari”

Bakotzak beran abildade deko bizitze honetan. Gure euskeran sarri esaten dogu "idea" deko honek automobille konponduteko, edo subeteko gauzatarako, edo yosteko, edo hitzaldik emoteko... Danatariko abildadek dauz, eta zorionez gure arten ugari dauz yolasarako eta yantzarako abildade eta korrea ona daukenak. Gure aittte amaman sasoiak kilometrok eta kilometrok egiten ei eudezen askok erromeriten yantzen egiteko. Gau egun erromeri gitxiago dau, baia erromeriko txori danak topaten dau nora hegaz egin.

Esakera hau Iñaki Gamindek baturiko da, eta beran "Urdulizeko berbak eta bizimodu" liburun topako dozu.

**Gureberbakere93**

Testua: Xabi Bilbao

**Esakera zahar batzuk: yan, edan, lo (III)**

Ostera bere egingo dotsegu omen Iruña-Veleian topa direzen euskerazko berba maite horri. Orain arteko bider bietan (Berbakere 85 eta 89) edan, yan eta lo zelan egiten dogun eta zalen ikusten doguzen erakusten daudezen esakerak ekarri doguz; Berbakere honetan ikusiko doguzen esakerak beste zeozer erakusten doskue: edate, yate eta loa modu metaforikon lez erabilten daudezen esakerak, gure bizitzeko beste gauza batzutarako adibide edo konseju modukok emoten dauskuezenak.

Honek topa leitez edaten ganera:

- *Edan behar dozun ura ez zikindu* (G. Garatek batute).
- *Edan behar ez dozun ura itxi yoaten* (G. Garatek batute).
- *Garraztasunak edan ezinda* (Mokoroak batute).
- *Ez edan ezer, ikusi barik, ta firmau bez leidu barik* (G. Garate).

Beste honek loan ganera:

- *Erbia uste ez dan lekuan lo* (G. Garatek batute).
- *Ohea zelan egiten dozun, holan lo egin bearko dozu* (G. Garate).
- *Sekula ez dago lo deabrua* (G. Garate).

Eta akabateko, ugarienak, jaten ganera:

- *Begiak andiago tripa baiño* (Azkuek batute).
- *Ondiño ogi asko jan behar dabe emeko umiek mundakarren bestien dantzan egiteko* (Mokoroak batute).
- *Alperraren atxurra erdoiak jan* (G. Garatek batute).
- *Arran min bakoa, ugerrak jan* (Garate).
- *Astoak aspaldi jan zum kontzientzia, berdia zalako* (Garate).
- *Askuen beixa ondo batua, baña gaixki jana* (Garate).

Eta Berbakere akabateko, betiko lez, esakera on bat loan eta edozein gauzatan gozotasune noz topaten dan ulertuteko:

- *Loan ezta gozorik, logale eztanean* (Garate).

I

Iñaki  
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23  
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

A Arasa

Sukalde eta Komunetarako  
Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen  
zaharberritzeak eta  
dekorazioa

Sarr Kobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

Errotalde  
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARRK?



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA





gaizka escudero / basalboko

## Usoak saltsan

Hasteko basazko kazolan oliiba oliotan urrezatu berakatz aleak. Eginda daudenean baztertu. Gero usoak irineztatu eta su bizian olio berean urrezatu. Ondoren atera usoak eta tipula, azenarioa eta porrua broumesean zatiturik, eta aurretik eginak geneukan berakatz bertan potxatu arte egin. Usoak gehitu eta koñiakarekin flanbeatu. Ondoren ardao (urtekoa bada hobeto) gehitu eta erreduzitu arte eduki sutan. Gero, gehitu okela salda apur bat eta intxaur muskatua, eta gustukoa izanez gero, txokolate beltz apur bat. Amaitzeko saltsa txinotik pasatu. Platera dadotan zatitutako patata frijituekin eta labean bigundutako txalotekin batera aurkeztu. On egin! <sup>m</sup>

osagaiak lau laguntzat

lau uso • tipla bi • azenario bi • porru bat • lau berakatz ale • basobete koñiak • botila erdi ardao gazte • txokolate beltza • intxaur muskatua




itsaso arana / jolastokikoa

## Albillo

Espainiatik kanpo nekez aurki daiteke albillo mahatsa, hori urrezko kolorekoa, aroma sarkorduna eta zapore gozokoa. Albillo Gaztela osoko mahai-mahatsa izan da betidanik eta, batez ere, ardao minduak, kalitate maila eskasekoak egiteko erabili izan da. Gaztelako izarra den *verdejo* estimatuaren itzalpean egon izan da beti, horixe izan da bere patua. Vallodoliden ardao beltzen aromak nabarmendu eta indartzeko erabili izan da (Vega Siciliakoak horren adibide dira). Inguru hartako Cigaleseko ardao gorri ospetsuetan nahasketetan ere erabili izan da. Baina Gaztelaz gain, Cuenca eta Guadalajaran landatzen da eta Almansako jatorri izendepenean onartutako barietatea da. <sup>m</sup>



## Lainoa taberna Herritarrentzako elkargunea



Argazkian, Iurgi Bilbao

**Ateak zabaldu** ditu berriro ere Algortako taberna mitikoenetako bat. Denbora luzez itxita egon ostean, Urgul kaleko lonjari aukera berria ematea pentsatu zuten Iurgi Bilbao eta bere bazkideak: "Dena oso azkarna izan zen; aurreko jabeekin hitz egin, dena atondu eta aratusteetarako ateak zabaldu genituen. Asko eskertu behar dugu familiakoek eta ingurukoek emandako laguntza". Hala ere, argi daukate eurek ez dutela taberna berri bat ireki: "Hau Lainoa da, gutako asko hasi eta hezi egin gara hemen".

Ez daukate inori kompetentzia egiteko asmorik, herriko giroa berpizten laguntzea da euren helburu nagusia: "Algortan jende asko dago eta jendeak lekuak eskatzen ditu". Pintxoak, kafeak, garagardoak... edozein tabernak bezala, jan-edan eskaintza zabala

daukate. Baina hori baino askoz gehiago izan nahi dute: "Edateko lekua baino gehiago izan nahi dugu, elkargunea, hain zuzen ere". Helburu horretan laguntzeko, hainbat kultur emanaldi antolatuzeko asmoa agertu digute: "Bertso-saioak, antzerkiak, liburu-aurkezpenak, erakusketak... denetarik eskaintzea da gure asmoa". Parte hartzeko prest dagoen edonorentzat ateak zabalik daude. Kirolak ere bere lekua izango du. Pantaila erraldoi bat jarriko dute hainbat modalitatetako partidak eskaini ahal izateko: "Erugbia, futbola... gurea oso herri kirolaria da".

Beraz, badakizue, aukera berria dago Algortan lagunartean herriko giroaz gozatu ahal izateko. Eta autoa hartu barik <sup>lm</sup>

**LAINOA, Urgul 2 behe, Algorta**

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
**ezagutzen al duzu?**

herriko pintxorik  
onenak ditugu  
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

CAFE  
**Usategi**  
ALGORTA  
Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

**KONTXI**  
**ZUZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T: 94 491 02 93

OSABIDE HORTZ KLINIKA  
Arantza Etxebarria

• Odontologia oroko-  
ma  
• Ortodontzia  
• Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96



**ARTAZA ETXEA**  
jatetxea  
• gozariak  
• txuletoia • makailua  
• arrain freskuak  
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz  
Erreserbak: 94 463 03 92  
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

**gOZOLABEA**  
galdaretxe  
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**Asado**  
**r**

- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

**Aretxondo 14**  
**Algortako Portu Zaharra / Getxo**  
Erreserbak: 94 491 25 93



**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**aldizkaria etxean jaso nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

[horoskopoa]

<p><b>URA</b> t</p>  <p><b>(Abenduak 21 urtarrilak 19)</b> Egunen batean zure buru gogorrak nahi-gabe bat ekarriko dizu eta orduan beranduegi izango da. Zeren zain zaude? Zeure harremana konpondu nahi baduzu eman ezazu lehen urratsa. Nagiak zure osasun ona desegino du, beraz gimnasia joan zaitetz berandu baino lehen.</p>	<p><b>OTSOA</b> t</p>  <p><b>(Urtarrilak 20 otsailak 18)</b> Egunak gero eta luzeagoak dira eta irrikan zaude hiruzpalau jaiegun edukitze-ko. Lasai, dena bere garaian iritsiko da. Baina ulertzekoa da zure grina, Gabonetako jaiak aspaldi igaro ziren eta. Zure lanarekin zerikusia duen bidaia bat egingo duzu.</p>	<p><b>ADARRA</b> t</p>  <p><b>(Otsailak 19 martxoak 20)</b> Egunak joan eta egunak etorri, zure harreman sentimentala haziz doa. Zure gorputzarekin gustura sentitzen zara baina ez litzaizuke txarto etorriko ondo jatea. Diru aldetik sekulako garaiak datoz, gainera zure proiektuak aurrera aterako dira.</p>
<p><b>AITZURRA</b> t</p>  <p><b>(Martxoak 21 apirilak 19)</b> Adiskideekin duzun harremana zaindu beharko zenuke. Azken finean, benetako lagunek egoera on eta txarretan lagundu zaituzte beti. Berandu izan baino lehen, noizbait bihotzez eskertu beharko zenieke.</p>	<p><b>HOSTOA</b> t</p>  <p><b>(Apirilak 20 maiatzak 19)</b> Egun hauetan bizitzaren inguruan duzun ikusmoldea zalantzan jarri beharko duzu, ezustekoren bat harrapa dezakezulako. Baliteke zer edo zer kreatiboa egiteak, hala nola, idazteak, zeure ideiak modu argian ikusteko parada eskaintzea.</p>	<p><b>EGUZKIA</b> t</p>  <p><b>(Maiatzak 20 ekainak 18)</b> Bakardadea zenbait egoera eta unetan ona izan daiteke, beraz ez zaitetz horregatik larritu. Pentsatzeko astia izango duzu eta bada garaia aurreko urtean erdizka utzitako hainbat gauzatxo amaitzeko. Meditazio apur bat, mesedez!</p>
<p><b>GARIA</b> t</p>  <p><b>(Ekainak 19 uztailak 18)</b> Ez ezazu zeure burua soilik begiratu, aski da inguruari begirada bat ematea norbaiti eragiten diozun minaz konturatzeko. Hain harro ibiltzea lagungarri iruditzen bazaizu ere, gogoratu: mundua ez dabil zeure inguruan biraka.</p>	<p><b>LASTOA</b> t</p>  <p><b>(Uztailak 19 abuztuak 17)</b> Maitasun kontuetan dena ikusia duzula uste baduzu ere, gutxien espero duzun momentuan pertsona batek zeure bizitza hankaz gora jarriko du. Beraz, gauzak birritan pentsatu, gero damutu nahi ez baduzu.</p>	<p><b>IRATZEA</b> t</p>  <p><b>(Abuztuak 18 irailak 16)</b> Sormen eta ideia originalez beteta duzu burua eta orain edozein arazo gainditzeko gai zara. Zure bihotza, aldiz, nahasmen hutsa da. Zure harremanetan dena da posible: hausturak, adiskidetzea... Itxaropena da galten den azkena.</p>
<p><b>META</b> t</p>  <p><b>(Irailak 17 urriak 16)</b> Lankide batekin eztabaidaren bat izango duzunez, tentsio handia jasango duzu hil honetan. Horregatik saiatu zaitetz denbora librean benetan gustatzen zaizkizun gauzak egiten: mendira joan, lagunekin egon, kirola egin, zinemara joan...</p>	<p><b>HAZIA</b> t</p>  <p><b>(Urriak 17 azaroak 15)</b> Nahiko arduragabe zabilta. Lanpetura zaudelako aitzakiak ez ditu honekero familia eta lagunak konbentzitzen. Bizitza sentimentalean ahaleginak egiten saiatuko zara gauzak bere onera itzul daitezen, baina agian beranduegi da.</p>	<p><b>NEGUA</b> t</p>  <p><b>(Azaroak 16 abenduak 20)</b> Ondo dago zure itxurak arduratuta egotea, baina zurea gehiegizkoa da txo! Lan kontuan itxura zaintzen jartzen duzun arretaren erdia jarriko bazenu, gauzak beste era batera aterako litzaizkizuke.</p>

**mungia**  
oKINdegia



*Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



**KEKO**

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Simetria dago. 2. Larrua. Bizkaieraz, simaur. 3. Gipuzkeraz, kilika-tuak. 4. Irinez, urez eta gatzaz osaturiko oreaz egiten den jangai. Konforme, bat gatoz. Iodoaren ikurra. 5. Sodioaren ikurra. Antzinako lurraldea, Adriatikoaren ipar-ekialdean. 6. Ipar., itxura. Trebe. 7. Ipar., zainketa. Bost. 8. Bazkalondo kuluska. Barazki mota. 9. Urarioaren ikurra. Bihi. Ipar., izu. 10. Lan handi. Odol-hodia.

Goitik behera

1. Barnatasun. 2. Ipar., izugari. Bokala. 3. Afrikako estatua. Pareta batean, alde batetik bestera igaro ahal izateko irekidurak. 4. Talde, multzo. Maisu edo gidari baten irakaspenak hartzen ditu. 5. Pena handia. Egoskin mota. 6. Kontsonantea. Erne. (Her.) Bada. Kontsonantea. 7. Ipuin. Kasik. 8. Aurkiarazi. 9. Ote, hitz elkarketan. Aurre. 10. Nahikoa. Pirinioetako oihera, Hechon. Bokala.

Soluzioak

V	N	I	V	Z	E	K	E	N
I	Z	I	E	L	E	U		
V	Z	V	V	T	S	E	S	
Z	T	H	O	B	V	T	H	V
O	I	V	I	V	K	V	T	
V	I	R	I	L	I	V	N	
I	S	O	D	V	I	G	O	
K	V	U	T	V	M	L	I	K
S	T	S	V	L	V	Z	A	L
O	V	I	K	O	A	I	S	I

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- **Balmasedako semea**
- **Barakaldon, Gasteizen edota Mallorcan egin izan du lan**
- **Gaur egun Bilbo aldean dabil**

> Aurrekoaren erantzuna: Marivi Bilbao

> Irabazlea: **Herena M. Llona \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidalitako erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu.

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

Usategi  
kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**  
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



FRANCISCO JAVIER DE MIGUELEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

San Inazio eskola, 1965

1977an atek itxi zituen eskola publiko hau Getxoko udaletxetik oso hurbil zegoen, Bihotz Sakratua eta Arkotxa kaleen artean hain zuzen ere; Arkotxa kalea ia bertan amaitzen zen, ez zuen gaurko Aiboarekiko loturarik.

Urte hartan bost ikasgela zituen eskolak: bat haur txikiarentzat (mistoa), ikasgela bi 6-10 urte artekoentzat eta beste bi 11-14 urte artekoentzat (neskatilak eta mutikoak banaduta). Argazkian 6-10 urteko mutikoak dituzue. Ez zegoen aparteko arrazoirik hau egiteko, ez zen ezer ospatzen; irakasleak eta bere lagun argazkizale batek argazkia ateratzea erabaki zuten, beste barik.

Neguri Langile, Alango, Konporte eta inguru horretako haurrak joaten ziren, batez ere, San Inazio eskolara, baina baita Hezetasun auzoko banaka batzuk ere. Oso langileak ziren, zapaturgo goizez eta arratsaldean joaten ziren eskolara, baina eguen arratsaldean jai hartzen zuten. m

**Zutunik:** Francisco Javier de Miguel (irakaslea), Antton Arri, Ignacio Granada, Julio Serrano, Jose Ramon Mendizabal, Jose Manuel Nuñez, Luis Zarraga *Camarote*, Juan Santos *Pio*, ?, Eduardo Basterretxea, Cruz Carrera.

**Makurtuta:** Manuel Bilbao, Alfonso Santos *Bicho*, Fernando Vazquez, Juan Luis, Tomas Bilbao, Jose Leal, David Rus, Etxeandia, Jesus Angel Cajigas, ?, Juan Francisco Pomposo *Juanfran*.

**Lurrean jesarrita:** Esteban San Martin, Emilio, Paco Blanco, Daniel Arri, Emilio Mateo, Aio, Fernando Lopez, Andres Bilbao, Emilio Blanco *Tamaro*, Juan Andres Sorozabal.



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

**JOSE INAZIO ANSORENA** > Txistularia eta Mirri pailazoa

“Mendira joatea da egiten dudan bidaiarik politena”

Testua: **Maitane Nerekan**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Txistularia eta pailazoa.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Nire bizitzakoan.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Jesu Kristo, ni kristaua naiz eta beti interesatu zait bere bizitza.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**

Tematia naiz eta gauzak guztiz xehetuta izan arte ez ditut uzten, astuna gertatzen naiz askotan.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Aitortzeko modukoa baldin bada ez da bizioa izango, ezta?

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

Egiten ditudan bidaiarik politenak astebururo Euskal Herriko mendietara egiten ditudanak dira. Mendiak ematen dit patxada, bakea eta naturarekin berriro aurkitzeko aukera.

**Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?**

Irakaskuntzak beti kitzikatu nau, borroka horretan ibiltzeak. Urte dezentez irakasle izan nintzen eskola batean eta denbora faltaz utzi behar izan nuen.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**

Dударik gabe, nire emaztea eta seme-alabak gabe.

**Goiza ala gaua?**

Goiza. Gaur egun badirudi komunikazio arazoak ditugula eta gauez ibili edo mozkortu behar dugula ondo sentitzeko. Nik ez dut hori behar.

**Euskal Herriko txoko kuttuna?**

Donostiako Alde Zaharra. Igandero txistua jotzen dut bertan, Konstituzio plazako arkupean. m

**LABURREAN**— Donostian jaio zen Jose Inazio Ansorena, 1953an. Askok Mirri izenez ezagutuko duzue, izan ere, 30 urte daramatza Euskal Herri osoa korritzen pailazo lanetan. Euskal musikarenganako zaletasun handia zuen familia batean hazi zen eta bere aitonaren gidaritzapean burutu zituen Txistu-danbolin ikasketak, Donostiako Kontserbatorioan. Horrez gain, Filosofia eta Letretako Lizentziatura lortu zuen Deustuko Unibertsitateko EUTG donostiar ikastetxean. Musikarekin lotutako lan asko argitaratu ditu, besteak beste, *Txistu Gozoa* izeneko metodoa eta *Iztueta Albenizen Musika Bilduma*. Tankera guztietako musika taldeekin jardun du musikaren zabalkundea lantzen emanaldi didaktikoen bitartez.

